Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

# JAZARPENAREN PREBENTZIOA LEHEN HEZKUNTZAN: ESKU-HARTZE PROPOSAMENA HEZKUNTZA EMOZIONALAREN BITARTEZ

## GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Fernández Arenas, Maider.

ZUZENDARIA: Ramos Díaz, Estibaliz.

**2019**

*Merezi izan ez arren, bizi eta sufritu izan zenuen.*

*Eskerrik asko hain txikia izan*

*eta hainbeste erakutsi eta irakasteagatik.*

*Zinez, borrokalaririk ausartena zara.*

*Maite Zaitut, E.*

**Laburpena:** Eskola jazarpena gero eta gehiago ematen den gertakaria da eta hori ekiditeko, garrantzitsua da txikitatik balore eta berdintasunean heztea. Hori horrela, irakasleen papera funtsezkoa da hazkuntza prozesu honetan, ikasleei beharrezko heziketa transmititzeko eta jazarpenari aurre egiteko. Gradu amaierako lan honen helburua eskola-jazarpena prebenitzeko esku-hartzea diseinatzea da, hezkuntza emozionala erabiliz, eta horretarako, KiVa eta Pentazitate programak erabili dira oinarri moduan. Hartutako lagina Lehen Hezkuntzako bigarren mailako 25 ikasle izan dira, Euskal Autonomia erkidegoko ikastetxe publiko batean ikasten dutenak, eta horiekin bi astez lan egin da, planteatutako jarduerak eginez. Horietatik lortutako emaitzak anitzak eta positiboak izan dira, ikasleen arteko harremana eta errespetua sendotzea lortu baita, haien emozioak ezagutzea, identifikatzea eta ikaskideekin konpartitzea eta horrekin batera, eskola jazarpenaren gaiarekiko kontzientzia sortarazi zaie. Horrekin batera, bi asteko esku-hartzea nahikoa ez da izan eta beraz, haiekin gaiaren inguruan lan egiten jarraitu behar da. Hala ere, diseinuaren baliagarritasuna nabaria izan da, ikasleek jazarpenarekiko kontzientzia garatu eta izaeran aldaketak izan baitituzte.

**Hitz gakoak:** Eskola-jazarpena | KiVa programa | Prebentzioa | Hezkuntza emozionala | Pentazitate programa | Lehen hezkuntza

**Resumen:** Cada día se dan más casos de acoso escolar y para evitarlo es importante educar en valores e igualdad desde pequeños. Por ello, es imprescindible el papel del profesorado en el proceso de crecimiento. El objetivo de este trabajo de fin de grado es diseñar una intervención para la prevención del acoso escolar mediante la educación emocional y para ello se han utilizado los programas KiVa y Pentacidad. La muestra que se ha utilizado ha sido un grupo de 25 alumnos de segundo curso de primaria de un colegio público de la Comunidad Autónoma Vasca, los cuales durante dos semanas han participado en varios ejercicios. De ellos se han obtenido varios resultados, entre otros, se ha podido observar que la relación y el respeto entre los

alumnos ha mejorado, han conocido sus emociones, las han identificado y compartido con sus compañeros y asimismo, han creado conciencia sobre el acoso escolar. El periodo no ha sido suficiente para tratar el tema a fondo, por lo que se debe seguir trabajando con ellos sobre él. Aun así, se ha podido verificar la utilidad del proyecto, creando conciencia en los alumnos y provocando cambios en su actitud.

**Palabras clave:** Acoso escolar | Programa KiVa | Prevención | Educación emocional | Programa pentacidad

**Abstract:** School bullying is an increasingly occurring issue and, to avoid this, it is important that children are educated in equality values since an early stage. Thus, teachers' role is crucial in this process of growth, in order to provide the necessary education and avoid this problem right from the start. The aim of this paper is to design an intervention to prevent bullying through emotional education by using KiVa and Pentacidad programs as a basis. 25 Primary Education students were the subjects of this study, who were registered in a public school in the Basque Country, and who worked on the activities for a period of two weeks. The results obtained have been multiple and positive. On the one hand, they have been able to strengthen the relationship among students and their sense of respect. On the other hand, they were able to identify their emotions as well as share them with each other and hence create an awareness about the school bullying problem. In addition, the duration of the study has not been enough and therefore, it is necessary to continue working on the topic in the future. However, the project´s usefulness was confirmed, as students built an awareness that made a change in their attitude.

**Key words:** School bullying | KiVa program | Prevention | Emotional education | Pentacidad program

# AURKIBIDEA

**Atala** **Orrialde zenbakia**

1. SARRERA……………………………………………………………………………6

2. JUSTIFIKAZIOA……………………………………………………………………..6

3. MARKO TEORIKOA………………………………………………………………...8

3.1. ESKOLA JAZARPENA……………………………………………………….8

3.1.1. Eskola jazarpena: kontzeptua, jatorria eta motak…………………………..8

3.1.2. Nola detektatu jazarpena?..........................................................................9

3.1.3. Jazarpenaren ondorioak…………………………………………………...11

3.1.4. Jazarpena prebenitzeko KiVa programa……………………………………11

3.2. HEZKUNTZA EMOZIONALA…………………………………………………...13

3.2.1. Hezkuntza emozionala: aurrekariak…………………………………………13

3.2.2. Zer da hezkuntza emozionala………………………………………………..14

3.2.3. Konpetentzia emozionalak Lehen Hezkuntzan……………………………..15

3.2.4. Garapen emozionala Lehen Hezkuntzan…………………………………....17

3.2.5. Emozioen lanketaren inguruko Pentazitate programa……………………..18

3.2.6. Irakasleen prestakuntza eta emozioen lanketa……………………………..18

3.3. HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA JAZARPENAREN PREBENTZIOA……...20

3.3.1. Jazarpena eta hezkuntza emozionala……………………………………….20

3.3.2. Jazarpenaren prebentzioa eta lanketa emozioen bitartez…………………20

4. HELBURUA…………………………………………………………………………21

5. METODOA………………………………………………………………………….21

5.1.Sarrera……………………………………………………………………….21

5.2.Testuingurua eta partehartzaileak……………………………………………...22

5.3.Esku-hartzearen proposamena…………………………………………………23

5.4.Edukiak………………………………………………………………........24

5.5.Faseak………………………………………………………………….....25

5.6.Denboralizazioa……………………………………………………….....27

5.7.Esku-hartze proposamena……………………………………………………...29

5.8.Ebaluazioa……………………………………………………………………..37

6. EMAITZAK………………………………………………………………………38

7. ONDORIOAK…………………………………………………………………...41

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK……………………………………………….42

9. ERREFERENTZIAK………………………………………………………………43

10. ERANSKINAK……………………………………………………………………..46

## 1. SARRERA

Hurrengo lerroetan Lehen Hezkuntzako Graduko amaierako lana aurkeztuko da, hezkuntza emozionalaren bitartez jazarpena prebenitzea oinarri duena. Jakina den moduan, eskola-jazarpena gizartean gero eta gehiago gertatzen den egoera da. Hori ekiditeko beharrezkoa da gizakiak txikitatik balore eta berdintasunean hezitzea eta ikasketa prozesu horretan irakasleek ardura handia dute. Finean, irakasleek txikitatik oinarrizko jakin-beharrak transmititzen diete ikasleei, gizartean nola jokatu behar duten erreferentzia izanez. Hori horrela, garrantzitsua da oso, sustrai gogorrak finkatzea emozioen arloan, haztean horiek denak garatzeko bide egoki batean.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Aukeratutako gaia hezkuntza emozionala izan da, hain zuzen ere eskola jazarpenaren prebentzioari aplikaturik. Alde batetik, ikastetxeetan egiten diren plangintzetan, euskara, matematika, historia, eta abar izan ohi dira kontuan. Aldiz, ikasleen jarrerek, baloreek, sentimenduek eta emozioek ez dute kabidarik hezkuntzan sisteman. Hortaz, pertsonak hazten ari dira emozioei garrantzirik eman gabe, kudeatzen jakin gabe, transmititzen, azaltzen, ezta haietaz zintzotasunez hitz egiteko gai izan gabe ere. Bisquerrak (2014) hezkuntza emozionala hezkuntza prozesu bat bezala definitzen du, jarraia eta iraunkorra dena. Horrekin batera, helburua konpetentzia emozionalak indartzea dela adierazten du, konpetentzia horien garapena sustatzeko eta bizitzan zehar suertatzen diren erronkak hobeto aurrera eramaten laguntzeko.

Horretaz gain, ikerketek adierazten dutenez, hezkuntza emozionalak izugarrizko onurak ditu; hainbeste dira hauek, non uste den haiei esker bizitzaren arrakasta eta ongizate psikologikoa lor daitekeela (Caballero, 2007). Gainera, emozioei entzungor eginez gero, ondorio negatiboak eragin dezake haur eta gazteengan; besteak beste, depresioa, elikadura-nahastea, agresibitatea eta delinkuentzia. Horren ondorioz, konbentzio soziala dago: garrantzitsua da emozioen kudeaketa zuzena egitea eta hezkuntza sozial egoki bat izatea, bizitzarako baliogarria dena, ongizate fisikoa eta mentala ematen duena eta zoriontsuak izatea eragiten duena (Bisquerra, 2014).

Behar hauek kontuan izanda, eskolak erantzun bat emateko erantzukizuna hartu behar du, izan ere, emozioak pertsonen garapen integralaren parte dira. Hortaz, Caballeroren (2007) ustez, heziketa-proiektuan emozioen lanketa kontuan izatea ezinbestekoa da, eta, era berean, beharrezkoa da alderdi honi balioa ematea. Ildo berean, hezkuntza

emozionala ezinbesteko tresna eta gehigarria da garapen kognitiborako eta arazoen prebentziorako (Bisquerra eta Hernández, 2017).

Bestetik, bullying-a gero eta gehiago gertatzen ari da, Cerezok eta Rubiok (2017) egindako ikerketan adierazten dutenaren arabera, gero eta jazarpen kasu gehiago ematen dira urteak aurrera egin ahala; esaterako, Espainian ikastetxeen %50ak baino gehiagok bullying kasuren bat du. Datu hauek ikusita, ondoriozta daiteke oso kopuru altuak direla, eta hortaz, argi dago gizartean arazo handia dagoela. Hori horrela, irakasleek ezinbestekoa dute gaiaren inguruan formaturik egotea, izan ere, oso posiblea da gelan horrelako kasu bat suertatzea, eta ondorioz, ezinbestekoa dute jakitea nola moztu, kudeatu, ahal izatekotan ekiditu, biktima babestu eta lagundu. Ildo berean, interesgarria izango litzateke, jazarpen egoera batean, biktimak dituen sentimenduak, beldurrak eta beharrak ezagutzea eta horren aurrean esku-hartzea. Era berean, interesgarria litzateke erasotzailearen figura aztertzea; egoera pertsonala, egiten dituen ekintzen zergatia bilatzen saiatzea, eta, besteak beste, erasotzailearen emozioak eta sentimenduak zeintzuk diren aztertzea.

Finean, jazarpenak emozioetan nolako eragina duen aztertzea erabaki dut izandako bizipen pertsonal baten ondorioz. Prozesua biktimaren aldetik aztertzeko aukera izan dut, eta pertsona batek gizarte-bazterketa baten aurrean sentitu dezakeena antzeman. Gainera, biktimaren sufrimendua lehen eskutik ikusteko aukera izan dut, baita familiarena ere. Era berean, egoera horrek izan ditzakeen esku-hartzeak ikusi izan ditut familia zein ikastetxearen aldetik. Horretaz gain, psikologo baten laguntzaz baliatzea oso faktore garrantzitsua dela ondorioztatu dut, biktimari errefortzu positibo bat eskaintzeko, segurtasuna garatzen laguntzeko, egoera baten aurrean nola erreakzionatzen ikasteko edota ekintza txarrak beste modu batera kanalizatzen ikasteko, besteak beste. Injustizia zer den sentitu izan dut askotan, biktimak hainbatetan “Zergatik niri?’; Zer egin dut nik?; Ez dut hau merezi, nahi dudan bakarra bukatzea da” eta horrelako esaldiak entzutean, negarrak ikustean, antsietatea eta panikoa bere begietan islatzean, besteak beste. Horren aurrean, zer egin nezakeen ni laguntzeko? erasotzen zutenen kontra zer egin, nola jokatu, baina finean nire eskuetan ez zegoen askorik egiteko etxetik kanpo. Esperientzia horrek, nigan gorputz osoan hotzikara sentitzea eragiten zidan, eta hor izan zen neure buruan zerbait aldatu behar zela sentitu nuenean, egoera horren aurrean milaka ume baitaude.

# 3. MARKO TEORIKOA

## 3.1. ESKOLA JAZARPENA

### 3.1.1. Eskola jazarpena: kontzeptua, jatorria eta motak.

Bere burua defendatzeko zailtasunak dituen norbaiti nahita min edo kalte egitea da bullying-a edo jazarpen kontzeptua (Avilés, 2006; Gallo, 2017; Salmivalli, Poskiparta, Tikka eta Pöyhönen, 2013). Alegia, ikasle bat eskola jazarpenaren biktima bihurtzen da, denboraldi batez modu errepikakor batean, beste ikaskide edo ikaskideen eskutik jarrera txarrak pairatzen dituenean (Gallo, 2017).

Salmivallik et al. (2013) haien ikerketa proiektuan adierazten duten bezala (KiVa proiektuan), mundu osoan haurren %10ak pairatzen du jazarpena. Lehen Hezkuntzako hamar ikasletik bat jazarria izaten da astero, eta haurren %16 eta %20 bitartean hilean zenbait aldiz. Ildo horretan, gela bakoitzeko jazarritako ume bat dago gutxienez, beraz, baieztatu daiteke oso ohikoa den arazo bat dela gaur egun. Modu berean, Cerezok eta Rubiok (2017) egindako ikerketan adierazi bezala, Espainiako ikastetxeen %50 baino gehiagotan jazarpen kasuren bat gertatzen ari da eta horietatik guztietatik %55,8a hitzezko erasoak dira eta %49a gizarte bazterketa.

Jazarpenaren jatorria hurrengoa da: erasotzaileak bere irudia sendotu nahi du eta entzuna izateko besteen mirespena eta atentzioa erakarri behar du edozein modutan (Salmivalli et al., 2013). Bestetik, biktimaren profila antzekoa izaten da kasu gehienetan: segurtasun handirik ez duen ikasle lotsatia, taldean estatus apala duena edota lagun gutxi edo bat bera ere ez duena. Hala ere, frogatuta dago horiek baino faktore gehiagok eragina dutela; besteak beste, ikastetxea, herrialdea, kultura, izaera, fisikoa, eta abar (Salmivalli et al., 2013). Esaterako, mendebaldeko herrialdeetan haur lotsati eta isilak sarriagotan izango dira jazarriak, eta Txinan, berriz, haur horiek estatus handia izaten dute bere lagunartean. Hortaz, kultura bakoitzean balioesten denak eragina dauka jazarpenean.

Eusko Jaurlaritzak (2015) diseinatutako ikastetxeetan eskola jazarpenei aurre egiteko gidan adierazten den moduan, jazarpen mota ugari gerta daitezke ikasleen artean, ez du zertan fisikoa izan behar. Jazarpena ahoz, modu fisiko edota psikologikoan egiten den eraso bat izan daiteke, modu zuzen edo zeharkakoan egiten dena, non biktimak segurtasuna galtzen duen eta ez den gai egoerari aurre egiten, erasotzaileak bere

posizioa egonkortzen doan bitartean (Leary, Kowalski, Smith, eta Phillis, 2003). Horri lotuta, jazarpena izateko baldintza zehatz batzuk bete behar ditu: min egiteko intentzioa izatea, denboran iraunkorra izatea eta boterearen desoreka egotea (Eusko Jaurlaritza, 2015). Alegia, jazarpena ez da momentu zehatz batean gertatzen den borroka edo desadostasuna.

***1.taula.*** **Jazarpen motak (Salmivalli et al., 2013).**

| JAZARPEN MOTAK | ZUZENA / ZEHARKAKOA |
|---|---|
| **Ahozkoa** | Zuzena, zeharkakoa edo mixtoa izan daiteke.<br><br>Esaterako:<br>Zuzena: iraintzea<br><br>Zeharkakoa: biktimaz gaizki hitz egin<br><br>Mixtoa: moteak ipintzea |
| **Soziala** | Zuzena, zeharkakoa edo mixtoa izan daiteke.<br><br>Esaterako:<br>Zuzena: gizarte bazterketa<br><br>Zeharkakoa: biktimaz gaizki hitz egin<br><br>Mixtoa: moteak ipintzea |
| **Fisikoa** | Zuzena edo zeharkakoa izan daiteke.<br><br>Esaterako:<br>Zuzena: jotzea<br><br>Zeharkakoa: bere objektuak apurtzea |
| **Psikologikoa** | Zuzena da.<br>Esaterako: mehatxuak edo umiltzea. |
| **Ziberjazarpena** | Zeharkakoa da.<br><br>Esaterako: Biktimari argazki bat ateratzea eta kontaktu ezberdinen artean zabaltzea |

### 3.1.2. Nola detektatu jazarpena?

Eskola jazarpena dela egiaztatzeko, baldintza zehatz batzuk bete behar dira (Áviles, 2006; Eusko Jaurlaritza, 2015):

1.Bi aldeen arteko, maila fisiko, psikologiko edo sozial ezberdina egon behar da eta biktimak babesgabetasun egoeran egongo da.

2.Min egiteko intentzioa egongo da bietako alde batetik.

3.Biktima, kasu gehienetan pertsona bakarra izango da, pertsona ahula eta babes eza duena.

4.Ekintzak eta jarrerak behin eta berriz errepikatu behar dira.

Horrekin batera, biktimaren portaeran aldaketak nabariak izango dira, hala nola, eskolarekiko interesa galduko du, eskolako autobusa hartzea beldur emango dio edo eskolara laguntzeko eskaerak egingo ditu sarritan. Gainera, ohikoenak direnak, eskola egunetan gaixo dagoela esango du, bere buruarengan konfiantza galdu duela emango du, lo egiteko zailtasunak pairatuko ditu eta estres eta antsietate aldiak sufrituko ditu (Salmivalli et al., 2013). Beraz, ez dago ondorio bakar bat, baizik eta alderdi askok adierazi dezakete haurra horrelako egoera sufritzen ari dela. Horren aurrean, gurasoak dira hobekien konturatu daitezkeenak haurren izaeraren aldaketaz.

Modu berean, garrantzitsua da, irakasle batek bere gelako ikasleen izaera ezagutzen duenetik eta ikasle guztien profilak kontuan izanda, jazarpena pairatu dezakeen ikasleak identifikatzea. Modu horretan, agerikoak diren egoerak suertatzen badira, irakaslearen esku-hartzea berehalakoa izango da (Salmivalli et al., 2013). Horretaz gain, argi izan behar da arazoa ez dela soilik tutore edo irakasle zehatz batena, izan ere, guztiek lan egin behar dute jazarpena ekiditeko, eta hortaz, gelan zein ikastetxeko edozein beste lekutan eman daitezkeen erasoak irakasle guztien kontrolpean egon behar dute, elkarlanean lan eginez eta guztiek erantzukizuna izanik. Azkenik, garrantzitsua da erasoren bat suertatzen denean irakasleen esku-hartzea zorrotza eta aktiboa izatea, izan ere, horrela ez bada, biktima babesgabetasun egoeran geratuko litzateke eta erasotzailearen rola, berriz, indartu egingo litzateke.

Jazarpenaren zergatiak ugariak izan daitezke, Salmivalli et al. (2013) arabera hurrengo ataletan sailkatzen dira: itxura fisikoa (%18,6), aurpegiaren itxura (%16,2), arraza edo kolorea (%6,8), orientazio sexuala (%2,9), erlijioa (%2,5) eta jatorrizko erlijioa (%1,7), hurrenez hurren.




***1.grafikoa.*** **Norbait erasotua izatearen zergatiak (Salmivalli et al., 2013)**

### 3.1.3. Jazarpenaren ondorioak

Jazarpen mota guztiek (ahozkoa, zeharkakoa, fisikoa, ziberjazarpena, agerikoa eta ezkutukoa) eragina izango dute biktimarengan zein erasotzailearengan. Horrekin batera, gainontzeko ikaskideek ere ondorioak izan ohi dituzte, askotan antzematen ez diren arren, baina gerta daiteke jarrera pasibo bat hartzea edo liderra jarraitu eta biktimaren erasotzaile bihurtzea, modu honetan biktima sozialki baztertuta geratuz eta inolako babes edo laguntzarik gabe.

Era berean, eskolan jazarriak izan diren pertsonek era askotako erasoak sufritzen dituzte, eta, denborarekin, ikaskideek gero eta kontzeptu okerragoa sortzen dute haiekiko. Gainera, biktima, jazarpena ematen den eskola urteetan, antsietatearekin, depresioarekin eta bakardade handiarekin sentitu ohi dira, eta kasu askotan, ondorio hauek heldutasunean ere bere horretan jarraitzen dute (Salmivalli et al., 2013). Horren harira, biktimek arazo psikologikoak, eskola porrota, autoestimuarekin arazoak, arrisku fisikoak edota garapen desegonkorra sufritu ditzakete eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gidaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Sarritan, gelako norbait jazarria denean, talde osoa edo bertako kide batzuk gaizki sentitzen dira, izan ere, asko arriskuan sentitzen dira, jazarriak izateko hurrengoak diren beldur (Salmivalli et al., 2013). Modu berean, ikaskide askok biktimarekin enpatizatzeko gaitasuna dute eta gaizki sentitzen dira badakitelako zer izan daitekeen horrelako egoera batetik pasatzea. Aldiz, jazarpenik ez dagoen gela batean, talde kohesioa eta giroa askoz hobeagoa da eta, era berean, ikasleek segurtasun handiz eta askeago sentitzen dira bertan.

Erasotzaileak edo erasotzaileek dituzten portaerak eta jazarpenerako joerak, etorkizunean egin ditzaketen delituen hasiera izan daitezke, hala nola, gelan boterea lortzeko nahia adierazten dutenean (Eusko Jaurlaritza, 2015).

### 3.1.4. Eskola jazarpena prebenitzeko KiVa programa

Eskola-jazarpena edo bullying-aren kopurua oso altua denez, eraso horiei aurre egiteko asmoz hainbat programa jarri dira martxan. Programa hauen helburua eskola jazarpenaren inguruko kontzientzia hartzea eta ahal den neurrian jazarpena prebenitzea da (Salmivalli et al., 2013). Horretaz gain, jazarpena gertatuz gero, horren aurreko esku-hartzea eta ikasgelan gaia lantzeko pautak ematen dituzte.

Gaur egun, asko dira jazarpena prebenitzeko aurki daitezkeen programak, hala nola 2017.urtean Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Bizikasi programa, Finlandiatik ekarritako KiVa programa, Suitzan diseinatutako Be-Prox programa, Norvegiako Zero programa, edota Espainian 2002.urtean diseinatu zen TEI programa (berdinen arteko tutoretzan oinarritzen dena). Hauen guztien helburuak bat datoz; bi dira: batetik, jazarpen kasuen murrizketa lortzea, eta bigarrenik, erasoak prebenitzea ikaskideen arteko harremana sendotuz eta errespetuan oinarrituz (Del Rey eta Ortega, 2001).

Lan honen esku-hartzea garatzeko, Salmivalli, Poskiparta, Tikka eta Pöyhönen, 2013. urtean sortutako KiVa programa oinarri moduan hartu da, izan ere, horrek eskola-jazarpena prebenitzeko eta lantzeko emaitza bikainak eman izan ditu. KiVa programa Finlandian sortutako jazarpena prebenitzeko esku-hartzea da, bertako haur psikologian eta jazarpen eskolarrean aditua den talde baten eskutik sortu zena. Horren ondotik, 30.000 ikasleekin praktikan jarri zen eta ebaluazio bat bideratu ostean, jazarpenaren kasuak nabarmenki jaitsi zirela eta ikasleen errendimendu akademikoa igo zela ondorioztatu zen. Gaur egun, KiVa programa Finlandian oso estimatua da ikastetxeetan emandako emaitzen ondorioz, eta hortaz, Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %90ak eskaintzen du.

KiVa programaren helburuak zehatzak dira. Batetik, irakasleei formakuntza ematea, jazarpena prebenitzeko edo esku-hartzeko estrategiak, metodologia eta tresnak izan ditzaten. Bigarrenik, ikasleei laguntza eskaintzeko diseinatu zen, hauek haien sentimenduak eta ikaskideenak aztertzeko, eta horrekin batera, guztion artean jazarpenari aurre egiteko. Azkenik, gurasoekin batera lan egiteko, hauei jazarpenaren inguruko informazioa eta jarraibideak ematen dizkie haiek identifikatzeko aukera izan dezaten. Gainera, KiVa programak hiru oinarri nagusi ditu: prebentzioa, interbentzioa eta ikuskapena. Prebentzioa lantzeko ikasle ororentzako ekintzak proposatzen ditu, eta ez soilik erasotzaile edo biktimarentzako. Horrekin batera, programak jazarpena gertatzen ari denerako esku-hartze moduak ditu, eta kasu honetan, ariketak biktimari, erasotzaileari eta taldekide guztiei zuzenduta daude. Azkenik, ikuskapenaren atalean, eskolaren egoera ebaluatzen du, baita honek dituen etengabeko aldaketak ere.

***2.taula.*** **KiVa programaren hiru oinarri nagusiak (Salmivalli et al., 2013).**

| | |
|---|---|
| **PREBENTZIOA** | Ikasle guztientzako ariketak proposatzen dira, taldean influentzia sortuz eta egiten dituzten akatsetaz konturatzen laguntzen dutenak, hauek zuzendu ahal izateko. |
| **INTERBENTZIOA** | Jazarpena ematen denean nola esku-hartu daitekeen moduak azaltzen dira, biktima, erasotzaile eta taldekideei zuzenduta daudenak. |
| **IKUSKAPENA** | Eskolaren egoera eta honek izaten dituen aldaketak ebaluatzen ditu. |

Lehen Hezkuntzako kurtso bakoitzeko KiVa liburu bana dago, maila bakoitzari dagozkion adin tarteei egokitua. Hori horrela, lan zehatz honek, bigarren mailako liburua izango du oinarri, horretaz baliatuta sortu baita proiektuaren diseinua. Horren zergatia urte horietan eskola jazarpena hasteko arriskua pizten denean da, komenigarria baita goiz hastea prebentzioa lantzen.

## 3.2. HEZKUNTZA EMOZIONALA

### 3.2.1. Hezkuntza emozionala: aurrekariak

"Emozio" hitza latinetik datorren hitza da, eta Vieitesen (2017) arabera, kanporantz mugitzea esan nahi du. Hortaz, esanahiari jarraiki, emozioek jarrera jakin batzuk izatea eragiten dute. Bisquerraren (2014) hitzetan, emozio bat organismoaren egoera bat da, kanpoko edo barruko gertakari baten ondorioz sortutako erantzunak alegia, eta horiek, positiboak edo negatiboak izan daitezke. Horrekin batera, emozio gehienak norbaitekin izandako elkarrekintzaren ondorio dira eta pertsona horrek duen garrantziaren arabera eragin handiagoa edo txikiagoa izaten dute (Vieites, 2017). Emozio ugari bereizi daitezke: poza, tristura, haserrea, beldurra, maitasuna, nazka, kezka, eta abar.

Adimen emozionala sentimendu eta emozioen kudeaketa maneiatzean datza, batzuk besteengandik desberdinduz eta pentsamendu eta ekintzak zuzentzeko erabiliz (Bisquerra, 2019). Horretarako, lau ataletan sailkatzen da: Pertzepzio emozionala, pentsamenduaren erraztasun emozionala, ulermen emozionala eta emozioen kudeaketa. Pertzepzio emozionalak adierazten du emozioak igarri, identifikatu eta

adierazi egiten direla, hizkuntza, jarrera, musika edo beste metodoen bitartez. Pentsamenduaren erraztasun emozionalaren kasuan, sentitutako emozioak sistema kognitiboan murgiltzen dira eta bertan eragina dute; hau da, emozioek pentsamendua lehenesten dute. Ulermen emozionalaren bitartez emozioak ulertu eta analizatzen dira, ezagutza emozionala garatuz. Alegia, horren bitartez, emozioak deskribatzen eta azaltzen dira. Azkenik, emozioen kudeaketak gogoetatsua izan behar du ezagutza emozionala eta intelektuala sustatzeko (Bisquerra, 2019).




***1.irudia*. Adimen emozionalaren atalak (Bisquerra, 2019).**

### 3.2.2. Zer da hezkuntza emozionala

Bisquerrak (2000) adierazten duen moduan, hezkuntza emozionala heziketa prozesu jarraia eta etengabea da, konpetentzia emozionalak bultzatzen dituena gizabanakoaren garapen integrala lortzeko asmoz. Horrekin batera, pertsonaren garapen pertsonal eta sozialean hartzen du parte, hortaz, bizitzarako heziketa dela esan daiteke. Nabarmentzekoa da hezkuntza emozionalaren helburua ez dela arrazoia emozioengatik ordezkatzea, baizik eta pentsamentu-akzioaren eredu tradizionala ezabatu eta emozio-pentsamendu-akzio eredu berria ipintzea (Bisquerra, Pérez eta García, 2014).

Horretaz gain, hezkuntza emozionalak helburu orokor finko batzuk ditu; besteak beste, emozioen inguruko ezagutza handitzea, gainontzekoen emozioak antzematen jakitea, emozioak erregulatzeko gaitasuna garatzea, automotibatzen ikastea, positibitatea gailentzea bizitzan zehar, emozio negatiboen ondorioak prebenitzea, eta emozio positiboak sortzen jakitea (Bisquerra, 2000).

Bestalde, kontuan izan behar da hezkuntza emozionalaren arloan lantzen diren gaiak askotan jasoko dituen pertsonen eta egoeren arabera kontuan izan behar direla eta behar horietara egokitzea dela egokiena (Bisquerra, 2005). Orokorrean, hezkuntza emozionalak arlo jakin batzuk lantzen ditu; hala nola, kontzientzia emozionala, emozioen kudeaketa eta gaitasun sozio-emozionalak, eta hauek guztiek, gainera, hezkuntzan eta pertsonaren garapenean duten eragina.

Bizitza betegarri bat izatera eramaten duten gaitasun gehienak ez dira intelektualak, baizik eta emozionalak, eta ondorioz, bakoitzaren emozioen kudeaketa eta gainontzekoen emozioen identifikazioa da hezkuntzaren helburua (Aguaded eta Pantoja, 2015). Alegia, ikasleek sentitzen dutena ikasten dutena bezain garrantzitsua izan behar da, eta beraz, emozioak Hezkuntza Curriculumaren parte izan behar dira. Horren arrazoia da eskolako lehenengo urteak oso garrantzitsuak direla, gaitasun emozionala asko garatzen delako eta urte horietan garatzen dena bizitza osorako ezinbesteko oinarria izango delako.

### 3.2.3. Konpetentzia emozionalak Lehen Hezkuntzan

Hezkuntza emozionalaren bitartez konpetentzia emozionala eta zeharkako konpetentziak lantzeko eta garatzeko aukera dago. Bisquerrak eta Pérezek (2007) konpetentzia emozionala honela definitu zuten: Pertsona batentzat beharrezkoak diren ezagutza, gaitasun, abilezia eta jarrera ezberdinen multzoa dira, fenomeno emozionalak era egokian ulertu, adierazi eta erregulatu ahal izateko.

Modu berean, Bisquerrak (2003) konpetentzia emozionala bost azpiataletan sailkatzen du:

**1.Konpetentzia soziala:** konpetentzia soziala beste pertsonekin erlazio zurrunak mantentzeko gaitasuna da. Horrek trebetasun soziala, komunikazio eraginkorra, errespetua, asertibitatea, eta abar menperatzea eskatzen du.

**2.Bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia:** jarrera egokiak eta arduratsuak hartzeko gaitasuna izatea, egunerokotasunean ematen diren erronka pribatuei, profesionalei edo sozialei modu egoki batean aurre egiteko. Bizitza modu osasuntsu eta orekatu batean antolatzeko aukera ematen du, ongizate bizipenak eskura jarriz.

**3.Emozioen erregulazioa:** emozioak modu egokian antolatzeko gaitasuna. Emozio, kognizio eta jarreraren erlazioaren kontzientzia izatea beharrezkoa da; aurre egiteko estrategia onak izatea, emozio positiboak sortzeko gaitasuna izatea, eta abar.

**4.Autonomia emozionala:** autonomia emozionala autogestio pertsonalaren elementu eta ezaugarriak dituen kontzeptu baten modura uler daiteke, eta horien artean, autoestimua, bizitzaren alde positiboa, ardura, kritikotasuna, laguntza bilatzeko gaitasuna, eta norberaren gaitasun emozionala daude.

**5.Kontzientzia emozionala:** Bakoitzaren eta besteen emozioak identifikatu eta kontzienteak izan, testuinguru zehatz bateko klima emozionala antzemateko gaitasuna ere barnean sartuz.




***2.irudia.*** **Konpetentzia emozionalak (Bisquerra, 2003).**

Heziberri 2020 Curriculumarekiko (Eusko Jaurlaritza, 2016) lotura eginez, esku-hartze honen bitartez, zeharkako konpetentziak lantzeko eta garatzeko aukera dago. Alde batetik, oinarrizko zehar-konpetentziei dagokienez, hurrengo konpetentziak landu dira:

**Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia:** Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

**Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia:** Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

**Elkarbizitzarako konpetentzia:** Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonei aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

**Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia:** Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.

**Norbera izaten ikasteko konpetentzia:** Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea

da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

### 3.2.4. Garapen emozionala Lehen Hezkuntzan

Haurtzaroa eta nerabezaroaren lehenengo atalak dira emozioak lantzeko aldirik onenak, adin tarte horretan markatzen direlako emozioak eta pertsonen izaera (Bisquerra, et al., 2014). Era berean, emozioen garapenik zabalena gertatzen da, eta beraz, ondorioztatu da eskolan ematen diren ikaskuntza prozesuak eta garapen emozionalak estuki lotuak daudela. Horren arrazoia hurrengoa da: emozioek ikasleen ongizatean eta hazkuntza garapenean hartzen dute parte (Bisquerra, et al., 2014).

Era berean, bakoitzak duen auto-kontzeptuaren ezagutza asko garatzen da Lehen Hezkuntzako urteetan. Urte horietan konpetentzia linguistikoa eta harreman sozialak zabaltzen dira eta horiek autokontzeptuaren sorkuntzan parte hartzen dute (Bisquerra, et al., 2014). Horrez gain emozio guztietatik , autoestimua nabarmentzekoena da, izan ere, garapen sozioafektiboan eragiteaz gain, bizipen emozionaletan, ikastetxeko jarreran, jarrera sozialean eta eremu psikologikoan eragiten du (Bisquerra, et al., 2014). Haurtzaroaren hasieran, umeek autoestima altua dute, baina, adinak gora egin ahala, behera egiten du ikaskideekin egiten dituzten konparaketen eta irakasleen balorazioen ondorioz. Ildo berean, ikertzaileen arabera, zortzi urterekin hiru autoestima mota desberdintzen dira: fisikoa, soziala eta akademikoa (Álvarez eta Jurado, 2018).

Bestalde, hezkuntza emozionalak ikasleen garapen sozio-emozionalean parte hartzen duela egiaztatu da. Hori horrela, hezkuntza emozionalak ikasleen errendimendu akademikoan duen eragina ezagutzeko ikerketan errendimendu akademiko eta hezkuntza emozionalaren arteko erlazioa zuzena zela ondorioztatu zen (Extremera eta Fernández, 2004). Horrekin batera, beste alderdi batzuen eragina aztertu zuten: osasun mentalaren alderdia. Modu honetan, identifikatu zuten inteligentzia emozionala garatuta zuten horiek osasun mental hobeagoa zutela; hau da, estres eta depresio gutxiago sufritzen dute. Gainera, ikusi zuten pentsamendu negatibo edo depresio modukoa pairatzen zuten ikasle horiek errendimendu akademiko baxua zutela. Finean, inteligentzia emozional intrapretsonalak ikasleen osasun mentalean eragina duela ziurtatu zuten, baita errendimendu akademikoa emozio eta osasun mentalaren menpe dagoela ere (Extremera eta Fernández, 2004).

### 3.2.5. Emozioen lanketaren inguruko Pentazitate programa

Ikasgelan emozioak tratatzeko hamaika programa daude, eta hauen guztien helburua emozioen lanketa eta kudeaketa da. Lan honetan Salasek eta Serranok (2000) diseinatutako pentazitate programa izan da oinarri egindako proposamena sortzerako orduan.




***3.irudia.*Pentazitate programak planteatzen duen garapen integralaren bost alderdiak (Salas eta Serrano, 2000).**

Pentazitate programa eredu hezigarri bat da, helburutzat pertsonen gaitasunak eta baloreak dituena. Oinarrizko helburu hauek, konpetentzia bihurtzen dira; besteak beste, pertsona izaten ikastea, elkarrekin bizitzera ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea eta emozioak kontrolatzen ikastea. Alderdi horiek pertsonen bizipenak sortzerako orduan lagungarriak dira, eta horrekin batera, taldeko partaide aktibo eta garrantzitsu direla sentiarazten diete. Pentazitate izena pertsona baten garapen integralaren bost atalak adierazten ditu: identitatea, arlo soziala, adimena, gorputza eta arlo emozionala. Horiek guztiak lotuta daude eta hazkuntza garapenaren parte dira.

### 3.2.6. Irakasleen prestakuntza eta emozioen lanketa

Kontuan izan behar da konpetentzia emozionalen garapena gehienbat eskola urteetan gertatzen dela, eta ondorioz, irakasleek eragin zuzena dute ikasleengan eta emozioen oinarriaren sorkuntzan. Hau da, eskolako elkarbizitzaren inguruan suertatzen dira mundu soziala ulertzeko oinarrizko ezagutzak (Sala, Abarca, eta Marzo, 2002). Gainera, eskola eremuan konpetentzia emozionalak bi arrazoiengatik sortzen dira, eragin zuzen eta ez-zuzenen ondorioz. Eragin zuzenek hezkuntza akzio esplizitu guztiak sortzen dituzte eta horien helburua konpetentzien ezagutza bermatzea da. Bestetik, eragin ez-zuzenek heziketaren kanpo dauden ariketek hartzen dute parte, programatuta ez dauden horiek baitira; hau da, curriculum ezkutuaren parte direnak. Esaterako, komunikazio sistemak edo elkarbizitza estiloak. Konturatu ez arren, prozesu hauek guztiak irakaslearen eredua jarraitzen ikasten da (Bisquerra, 2014).

Bisquerraren aburuz (2005) ezinbestekoa da irakasle baten hasierako formakuntzan “Heziketa emozionala” ikasgaia edukitzea, modu honetan, irakasleak gaiaren beharrezko ezagutzak lortuko lituzke, eta horrekin batera, gaitasun horiek lortzeak heziketako betebeharrak hobeto betetzea eragingo luke. Hasierako formakuntza

horrekin konpetentzia batzuen ezagutza hartuko dute; besteak beste, emozioen kontzientzia hartzea, emozioen kudeaketa egoki garatzea, hezkuntza emozionala lantzeko programa diseinatzea, helburuak zehaztea, garatzea eta ebaluatzea, bakoitzaren zein gertuko pertsonen emozioak identifikatzea eta emozioek bizitza osoan zehar duten garrantziaz jabetzea.

Bestalde, Bisquerrak (2005) irakasleen formakuntzak etengabekoa beharko lukeela izan aldarrikatzen du, gai honen inguruko berrikuntzak izateko. Horrekin batera, Haur Hezkuntza irakasleetatik hasita, Bigarren Hezkuntzako irakasleetara arte izan beharko luke, bakoitzak bere eremuko ikasleen beharrizanetara egokitzeko gaitasuna jorratzeko. Formakuntza jarrai horren helburuak hezkuntza munduan emozioen arloaren konpetentziak ezagutzea, ezagutza zientifikoa hezkuntza emozionalean oinarritzen diren programak martxan jartzea, hezkuntza emozionala ikastetxeetan lantzea eta berrikuntzak aurrera eramateko baldintza egokiak dituen ikastetxeak identifikatzea izango lirateke.

Gainera, irakasleen inplikazioa funtsezkoa izango da jazarpena ekiditerako orduan (Izquierdo, 2017). Ikasgelako giroa konfiantzazkoa, segurua, kooperatiboa, ekitatiboa eta errespetuzkoa bada, zaila izango da jazarpen egoerak gertatzea. Ildo berean, gaur egungo gelak oso anitzak dira, kulturan, maila sozioekonomikoan, sexualitatean, eta abar, eta hortaz, horrek funtsezkoagoa egiten du berdintasuna eta dibertsitatearen inguruan lan egiteko beharra. Horretarako, irakasleak ikasleei dibertsitate hori erakutsi beharko die, gehiago ikasteko aukera baten moduan aurkeztuz eta benetako onarpena lortzeko asmoz (Izquierdo, 2017). Horrek guztiak arrazoiak ematen ditu irakasleen papera egokitzeko behar berezi horietara, egoera berri horietara, irakaslearen lanaren eraginkortasuna areagotzeko eta jazarpena prebenitzeko.

Hori guztia garatzeko irakasleek konpetentzia batzuk izan behar dituzte oinarri, ikasleei horiek transmititzeko, hain zuzen ere Heziberrik (2020) markatzen dituenak. Oro har, irakasle batek zeharkako bost konpetentziak helarazi behar dizkie ikasleei. Horrekin batera, kasu honetan zehazki, proiektu honi lotura estua duen konpetentzia emozionalaren inguruan ongi mamituta egon beharko da, modu egokian aplikatzeko.

## 3.3. HEZKUNTZA EMOZIONALA ETA JAZARPENAREN PREBENTZIOA

### 3.3.1. Jazarpena eta hezkuntza emozionala

Hezkuntza emozionalak gero eta garrantzi handiagoa hartzen du hezkuntza arloan, gehienbat elkarbizitzari begira; alegia, ikasleen arteko gatazkak konpontzeko tresna moduan erabiltzen hasi da (Elipe, Ortega, Hunter, eta Del Rey, 2012). Ikasgelan suertatzen den elkarbizitzan oso presente daude jazarpena eta ziberjazarpena, errespetua, morala eta erlazio onarekin apurtzen dutenak. Edozein kasutan, biek desoreka emozionala azaleratzen dute, eta denborarekin eragin oso txarrak sor ditzakete, bai biktimarentzat, baita erasotzailearentzat ere.

Emozioak ulertzea informazio emozionala ulertzeko gaitasuna da, emozioak nola konbinatzen diren eta harremanetan eragina duten ulertzea hain zuzen ere. Horrekin batera, emozio erregulazioa sentimenduak izateko gaitasuna da, eta norberaren eta besteen artekoak sustatzeko adimen pertsonala izatea ezinbestekoa da (Garaigordobil eta Peña-Sarrionandia, 2015). Horretaz gain, ikasketa batzuek adierazi dutenez, emozio eta portaera bortitzaren arteko lotura zuzena da (Garaigordobil, 2013). Halaber, uste du jazarpena murrizteko esku-hartze psikologiko, kognitibo eta soziala behar dela, izan ere, jazarenaren prebentzioa eta esku-hartze programek arazoak konpontzeko trebetasunak irakatsi beharko lituzkete eraginkorrak izan daitezen. Funtzionamendu kognitibo eta sozialaren inguruko esku-hartzeak funtsezkoak dira jazarpenaren zikloarekin hausteko (Garaigordobil eta Peña-Sarrionandia, 2015). Azkenik, jazarpen prebentziorako programak eraginkorrak izan daitezen gizarte emoziozko ikasketak jorratu behar dira, hala nola emozioen kudeaketa, komunikazioa, enpatia eta arazoak konpontzea (Jones, Doces, Swearer eta Collier, 2012).

### 3.3.2. Jazarpenaren prebentzioa eta lanketa emozioen bitartez

Oso garrantzitsua da jazarpenaren prebentzioari denbora eskaintzea, eta gehienetan, hau ez da lan erraza izaten (Bisquerra, 2014). Jazarpena kasu askotan irakaslea konturatzen ez denean gertatzen da, eta ondorioz, esku-hartzea garaiz egitea zailtzen du (Bisquerra, 2011). Horretarako programa ugarik, jazarpena egotekotan zein ez egotekotan, emozioak lantzeko ariketak diseinatu dituzte, hala nola, Pentazitate, Nahiko, adi-adian, Talentarte, Kiva edo Bizikasi programak.

Ikasleak kontzientziatu behar dira arazoa ez dela pertsona bakar batena, baizik eta, modu zuzen edo zeharkako batean, guztiak daudela inplikatuta (Bisquerra, 2014). Halaber, oso aproposa da haiekin emozioak eta jazarpenaren inguruko gaiak jorratzea. Ikasleei hipotesi egoerak planteatzea eta haiek azalean ipinaraztea ere metodo hona izan daiteke, modu horretan benetako larritasunaz konturatzen baitira (Bisquerra, 2011; Salmivalli et al., 2013). Ildo berean, azpimarratzekoa da KiVa programak garrantzi handia ematen diola jazarpena ezagutzera emateari, eta horretarako, bi ariketa mota planteatzen dituela: alde batetik, orokorrak direnak, prebentziorako baliagarriak direnak eta umeak jazarpena ezagutzea ahalbidetzen dutenak; eta bestetik, berariazkoak direnak, jazarpena ikusia izaten denean, esku-hartzera laguntzen duten horiek direnak (Salmivalli et al., 2013).

Bestalde, gelako ikasleen harremana sustatu behar da, gehienbat biktimaren papera duen pertsonari laguntzeko (Extremera eta Fernández, 2004). Horretarako, talde jarduerak egitea eta jazarpenaren inguruko ariketak planteatzea garrantzitsua da. Era berean, emozioen eta haien kudeaketaren inguruko ariketak lantzea komenigarria da, ikasleek biktimaren tokian jartzeko eta berarekin enpatizatzeko aukera izango dute. Gainera, kasu askotan gerta daiteke ikaskideek jazarpenaz ez konturatzea, eta hortaz, egoera azaleratuz gero, laguntza adierazi dakioke biktimari (Salmivalli et al., 2013).

## 4.HELBURUA

Lan honen helburu nagusia hurrengoa da: hezkuntza emozionalean oinarrituta, Lehen Hezkuntzan eskola-jazarpena prebenitzeko programa bat diseinatzea eta bigarren mailako lagin batean aplikatzea eta ebaluatzea izan da.

## 5. METODOA

### 5.1. Sarrera

Jarraian, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako talde batean planteatutako esku-hartze bat proposatuko da, jazarpenaren prebentziorako balio duena. Horretarako, KiVa eta Pentazitate programen metodologiak jarraituko dira, bertatik hartutako ariketak planteatuz, eta hainbat kasutan, hauei ikasleekiko egokitzapenak eginez. Hainbat ariketa luzeegiak izanik, murrizketa egin zaie eskolako ordu tarteetara egokitzeko. Horretaz gain, 6 ariketa egokitu behar izan ziren, izan ere, eskatutako baldintzak zailegiak ziren haien irakurketa-idazketa mailarako. Halaber, ariketen galderak modu sinpleago batean planteatu ziren, bere ulermen mailarekin bat egiteko asmoarekin.

Programa diseinatu ondotik, eskolan praktikara eraman izan da, unean une beharrezko hobekuntzak eginez. Horrekin batera, programaren baliagarritasuna aztertu da, datu guztiak batuz eta horien inguruko analisia eginez.

### 5.2. Testuingurua eta parte-hartzaileak

Ikerketa hau, Balmaseda herriko C.E.I.P. Mendia H.L.H.I. ikastetxean egin da, hain zuzen ere Lehen Hezkuntzako 2.mailan. Mendia D ereduko eskola publikoa da, 500 ikasle inguru dituena. Bertako familiak, oro har, maila sozioekonomiko ertain eta baxukoak dira, nahiz eta maila altuko jendea egon badagoen.

Ikerketari erreferentzia eginez, aipatu bezala bigarren mailako ikasgelan egin da. Lagina 6 eta 8 urte bitarteko 25 ume izan dira, 8 neska eta 17 mutil; alegia, osoaren %32a neskak dira eta %68a mutilak. Kopuru horretatik, zazpik Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (H.I.B.P.) programa jarraitzen dute; hau da, helburuak eta edukiak haien gaitasunetara egokituak dituzte.

***3.taula.*Ikasgelan aurkitu daitekeen ikasleria sexua eta adina aztertuz.**

| Sexua | | Adina | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 6 urte | 7 urte | 8 urte | Guztira |
| | Neskak | 1 (%4) | 5 (%20) | 2 (%8) | 8 (%32) |
| | Mutilak | 2 (%8) | 14 (56%) | 1 (%4) | 17 (%68) |
| | Guztira | 3 (%12) | 19 (%76) | 3 (%12) | 25 (100%) |




***2.grafikoa.* Ikasle kopurua sexuaren arabera.**







***3.grafikoa.*** **Nesken kopurua adinaren arabera.** ***4.grafikoa.*** **Mutilen kopurua adinaren arabera.**

### 5.3. Esku-hartzearen helburuak

Diseinatutako proiektuaren bitartez, ikasleen emozio eta jazarpenaren inguruko formakuntza bat jasotzea nahi da, eguneroko elkarbizitzan kontzienteki aplikatzeko eta errespetuzko pertsonak bilakatzeko. Kasu honetan, kontuan izan behar da jarduera bat eginez helburu bat baino gehiago landu daitekeela, eta beraz, esan dezakegu zeharkako interbentzio bat dela.

***4.taula.*** **Esku-hartzearen helburu espezifikoak.**

| HELBURU ESPEZIFIKOAK | FASEAK |
|---|---|
| Emozioekin lotutako hiztegia ikasi, azalpen eta ariketen bidez, gaiaren inguruan modu apropos batean mintzatzeko. | 1. Fasea |
| Ikaskideekiko sentimenduak adieraztea, jarduera espezifikoen bitartez, haien arteko harremana sendotzeko. | 1.Fasea<br>2.Fasea<br>3.Fasea |
| Emozioak interpretatzea, egoera ezberdinak ikusita, albokoen egoera interpretatzeko. | 1.Fasea<br>3.Fasea |
| Eskola-jazarpenaren inguruko terminologia menperatzea, gaiaren inguruan arakatuz, hainbat alderditan ezagutzak izateko. | 2.Fasea |
| Mingarriak izan daitezkeen egoerak identifikatzea eta horiekiko kontzientzia hartzea, gertakari errealak aztertuz, ekiditu ahal izateko. | 2.Fasea<br>3.Fasea |
| Norberaren portaerak modu gizatiartu batean garatzea, beharrezko heziketa jasoz, errespetuzko herritarrak izateko. | 1.Fasea<br>2.Fasea<br>3.Fasea |

### 5.4.Edukiak

Proiektu honen edukiak zeharka lantzen dira, hau da, hurrengo lerroetan ageri diren alderdiak fase ezberdinen bitartez landu daitezke. Esku-hartze honetan landutako edukiak, aldi berean hezkuntza curriculumarekin (Heziberri 2020) bat datozenak, hurrengoak dira:

***5.taula.*****1.multzoa: Eduki komunak.**

| **1. MULTZOA: Eduki komunak** |
|---|
| **A. Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak.** |
| Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea. |
| Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, eta abar). |
| Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, eta abar). |
| Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea. |
| Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea). |
| Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea. |
| Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea. |
| Gatazkak kudeatzea. |
| Norberaren emozioak erregulatzea. |
| Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala). |
| Norberaren jokabide morala erregulatzea. |
| Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea. |

***6.taula.*** **2.multzoa: Pertsonaren nortasuna eta duintasuna.**

| **2. MULTZOA: Pertsonaren nortasuna eta duintasuna** |
|---|
| Nortasun pertsonala: ezaugarri fisikoak, kulturalak eta sozialak. |
| Asertibitatea eta pertsonen arteko harremanetan duen ahalmen positiboa. |
| Erabaki asertiboak hartzeko estrategiak. |
| Sentimenduak eta emozioak. Identifikazio eta adierazpen positiboa. |
| Enpatia. |
| Taldean lan egiteko arauak. |

| |
|---|
| Talde-lanaren bidezko garapena. |
| Lanaren inguruko konpromiso argudiatuak adostea. |
| Ikasketa- eta familia-eremuko konpromiso pertsonalari lotutako arazoak taldean konpontzea. |
| Norberaren eta besteen dohainak eta mugak onartzea. |
| Besteen bizi-proiektuak errespetatzea. |
| Asertibitatea positiboki balioestea. |
| Autonomia arduratsua agindutako zereginak egitean, arauak betetzean eta erabakiak hartzean, eta norberaren ekintzen ondorioak bere gain hartzea. |
| Ekimen pertsonalaren (ekintzailetzaren) balioespen positiboa |

***7.taula.* 3.multzoa: Elkar ulertzea eta errespetua pertsonen arteko harremanetan.**

| 3. MULTZOA: Elkar ulertzea eta errespetua pertsonen arteko harremanetan. |
|---|
| Asertibitatea lortzeko modua. |
| Oreka pertsonen arteko harremanetan (harreman arinak eta hainbat interes eta ikuspegi uztartuko dituztenak), eta kultura desberdinen bizikidetza eta integrazioa. |
| Besteen mezuak (hezitzaile, guraso, ikaskide eta adiskideenak) interes eta errespetuarekin entzuteko prestasuna. |
| Inguruneko pertsona hurbilekin elkarrizketarako harreman irekia izatea. |
| Talde-lana norberaren lan gisa bere gain hartzea. |
| Bidezko eta berdintasunezko harremanak. |
| Erantzukizuna eta elkartasuna taldean lan egitean edo beste zeregin kolektibo batzuetan. |
| Duintasuna eta desberdintasunerako eskubidea babesteko konpromisoa |

### 5.5. Faseak

Esku-hartzea martxan jartzeko, lehenik eta behin, hasierako galdetegia beteko dute; ostean, lehenengo, bigarren eta hirugarren jarduera faseak egingo dira, eta horiek, nahasian landuko dira, izan ere, lehen aipatu bezala, zeharkako esku-hartzea da proposaturikoa; eta azkenik, amaierako galdetegia pasako da, hasieran erantzundako galdetegiaren berdina dena.

Laburpena:

-Hasierako galdetegia.

-Lehenengo fasea: Bihotzak, zer dio?

***8.taula.* 1. faseko jarduerak.**

| 1.Fasea: Bihotzak, zer dio? |
|---|
| 1. Jarduera: Zer dira emozioak? |
| 2. Jarduera: Emozioak deskribatzen. |
| 3. Jarduera: Emozioak erregulatzeko metodo ezberdinak lantzen. |
| 4. Jarduera: Emozioen detektibeak. |
| 5. Jarduera: Ikusi emozio bat. |
| 6. Jarduera: Maitasungramak. |
| 16. Jarduera: Ikasgelako giroan nola laguntzen dut? |
| 18. Jarduera: Hizkuntza negatiboa positibo bihurtu. |

-Bigarren fasea: Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi.

***9.taula.* 2. faseko jarduerak.**

| 2.Fasea: Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi. |
|---|
| 7. Jarduera: Zer da jazarpena? Jazarpena eta motak ezagutzen. |
| 8. Jarduera: KiVa kontratua. |
| 13. Jarduera: Hiru karten jokoa. |
| 19. Jarduera: Jazarpena ikustekotan, KONTATU! |

-Hirugarren fasea: Sentitu, errespetatu, eta eskola-jazarpenarekin bukatu!

***10.taula.* 3. faseko jarduerak.**

| 3.Fasea: Sentitu, errespetatu, eta eskola-jazarpenarekin bukatu! |
|---|
| 9. Jarduera: Biktimaren istorioa. |
| 10. Jarduera: Hizkuntza positiboa. |
| 11. Jarduera: Imajinatzen eta enpatizatzen. |
| 12. Jarduera: Elkartzeko dantzan. |
| 14. Jarduera: Biktima babestuko dugu. |

| 15. Jarduera: Jazarpen egoera baten parte garela imajinatzen eta sentitzen. |
| --- |
| 17. Jarduera: Asertibitatea lantzen. |

-Amaierako galdetegia.

### 5.6. Denboralizazioa

Hurrengo tauletan esku-hartze honetan planteatuko diren ariketen fitxak ageri dira, eta horietan hurrengoa adierazten da: ariketa bakoitzak behar izango duen denbora, ikasleak nola antolatuko diren, zein material erabiliko dituzten, eta azkenik, zein izango den jarduera gauzatzeko gela mota. Laburbilduz, diseinatutako esku-hartzea bi astetan zehar eramango da aurrera, sakabanatutako orduetan. Hau da, egunero bi ordu erabiliko dira, gutxi gorabehera, eta jarduera guztiak egiteko bi asteko denbora beharko da. Lehenengo astean, jardueren lehenengo fase osoa gauzatuko da eta bigarrenari hasiera emango zaio, eta, bigarren astean berriz, bigarren fasea egin, bukatu, eta hirugarrena landuko da. Egunez-egun egingo dena zehatzago ikusteko jo **I.eranskinera**.

***11.taula.*** **Denboralizazioaren laburpena.**

| | | | LEHENENGO ASTEA | | | | | BIGARREN ASTEA | | | | |
| --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- | --- |
| | | | Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala | Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
| JARDUERAK | Hasierako galdetegia | | | | | | | | | | | |
| | 1.FASEA | 1.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 2.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 3.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 4.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 5.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 6.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 16.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 18.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | 2.FASEA | 7.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 8.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 13.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 19.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | 3.FASEA | 9.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 10.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 11.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 12.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 14.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 15.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | | 17.Jarduera | | | | | | | | | | |
| | Amaierako galdetegia | | | | | | | | | | | |

***12.taula.* 1.FASEA: Bihotzak, zer dio?**

| JARDUERA | DENBORA | ANTOLAKETA | MATERIALA | GELA |
|---|---|---|---|---|
| **1.jarduera** | 30 minutu | Talde handian | Irakasleak: KiVa liburua | 2.D2 (Arrunta) |
| **2.jarduera** | 45 minutu | Talde txikietan | Ikasleek: Emozio txartelak | 2.D2 (Arrunta) |
| **3.jarduera** | 30 minutu | Talde handian | Irakasleak: KiVa liburua | 2.D2 (Arrunta) |
| **4.jarduera** | 1h | Bakarka + Talde handian | Ikasleek: Lupa, oharrak hartzeko orria, arkatza, borragoma | 2.D2 (Arrunta) |
| **5.jarduera** | 45 minutu | Talde txikietan | Ikasleek: Emozio txartelak | 2.D2 (Arrunta) |
| **6.jarduera** | 30 minutu | Bakarka | Ikasleek: Ikaskideen izena, papera, arkatza eta borragoma | 2.D2 (Arrunta) |
| **16.jarduera** | 45 minutu | Bakarka + Talde txikietan | Ikasleek: orrialdea, arkatza eta borragoma | 2.D2 (Arrunta) |
| **18.jarduera** | 30 minutu | Bakarka | Ikasleek: orrialdea, arkatza eta borragoma | 2.D2 (Arrunta) |

***13.taula.* 2.FASEA: Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi.**

| JARDUERA | DENBORA | ANTOLAKETA | MATERIALA | GELA |
|---|---|---|---|---|
| **7.jarduera** | 1h 30 minutu | Talde handian | Bideoak | 2.D2 (Arrunta) |
| **8.jarduera** | 2h | Talde handian - Bakarka | Irakaslea: KiVa liburua<br><br>Ikasleek: fitxen orriak, kontratua, arkatza, borragoma | 2.D2 (Arrunta) |
| **13.jarduera** | 45 minutu | Talde txikietan | Ikasleek: Zer, Nori, Nork txartelak | 2.D2 (Arrunta) |
| **19.jarduera** | 15 minutu | Talde handian | - | 2.D2 (Arrunta) |

***14.taula.* 3.FASEA: Sentitu, errespetatu, eta eskola-jazarpenarekin bukatu!**

| JARDUERA | DENBORA | ANTOLAKETA | MATERIALA | GELA |
|---|---|---|---|---|
| **9.jarduera** | 30 minutu | Talde handian | Bideoa | 2.D2 (Arrunta) |
| **10.jarduera** | 30 minutu | Talde handian + Bakarka | Ikasleek: Orrialdea, arkatza eta borragoma | 2.D2 (Arrunta) |
| **11.jarduera** | 15 minutu | Bakarka | Irakasleak: Kontakizuna | 2.D2 (Arrunta) |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **12.jarduera** | 15 minutu | Bakarka + Talde handian | Musika<br><br>Ikasleek: posit-a, arkatza | 2.D2 (Arrunta) |
| **14.jarduera** | 15 minutu | Talde handian | Irakasleak: KiVa liburua<br><br>Ikasleek: fitxak | 2.D2 (Arrunta) |
| **15.jarduera** | 20 minutu | Bakarka | Irakasleak: KiVa liburua | 2.D2 (Arrunta) |
| **17.jarduera** | 20 minutu | Talde handian | Irakasleak: KiVa programa | 2.D2 (Arrunta) |

***15.taula.*** **Beste batzuk: Hasierako eta amaierako galdetegia.**

| JARDUERA | DENBORA | ANTOLAKETA | MATERIALA | GELA |
|---|---|---|---|---|
| **Hasierako galdetegia** | 1h | Bakarka | Ikasleek: Galdetegia, arkatza eta borragoma | 2.D2 (Arrunta) |
| **Bukaerako galdetegia** | 1h | Bakarka | Ikasleek: Galdetegia, arkatza eta borragoma | 2.D2 (Arrunta) |

## 5.7. Esku-hartze proposamena

Esku-hartze hau hiru faseetan dago banatuta: batetik, emozioetan zentratutako ariketak, bestetik, eskola jazarpenaren gaiari zuzendutako jarduerak, eta azkenik, aurreko biak uztartzen dituztenak. Hiru fase horietan esku-hartzeak dituen 19 ariketak kokatuko dira, bakoitza dagokion atalean. Aurreko atalean azaldu bezala, kontuan izan behar da ere, fase ezberdin horietan edukien lanketa dagoela eta hau zeharkakoa dela. Alegia, eduki eta helburu ezberdinak hainbat fasetan lantzen dira.

Ariketekin hasi baino lehen, ikasleei galdetegi bat pasa zaie **(Ikus II.eranskina)**, eta modu horretan, haien gaiaren inguruko aurre-ezagutzak zeintzuk diren aztertu egin da. Ondoren azalduko diren ariketa guztiak bukatutakoan, ikasleek aurretik egindako galdetegi berdina bete izan dute, modu horretan hasierako eta amaierako erantzunak konparatzeko haien garapena aztertzeko.

### 1.Fasea: Bihotzak, zer dio?

### 1. Jarduera: Zer dira emozioak?

Emozioen lanketari hasiera emateko, horiek zer diren, zeintzuk ezagutzen dituzten eta zerk eraginda sortzen diren komentatuko da. Horren ondoren, ikasle bakoitza nola sentitzen den adierazi eta sentimendu hori zeren ondorioz sortu den argudiatu behar du.

**2. Jarduera: Emozioak deskribatzen.**

Ikasleak taldeka banatuta egongo dira eta horietako bakoitzari emozio txartel bat emango zaio **(Ikus III.eranskina)**. Egokitutako emozioaren arabera, ikasleek deskribatu eta egoera batekin erlazionatu behar dute. Hau da, emozioa zein den, zein egoeratan eta zeren ondorioz sortzen den deskribatuko dute.

Jarduera horren bitartez, emozio ugari daudela aztertzeaz aparte, egoera bera oso modu ezberdinetan bizi daitekeela hausnartzeko aukera izango dute. Horretaz gain, egoera bat bizitzeko "modu zuzen bat" ez dagoela ikasteko balio du, baizik eta modu anitzak daudela eta guztiak direla onak. Gainera, emozioak identifikatzeko gai izanda, konturatuko dira errazagoa litzatekeela besteen lekuan jartzea. Hori horrela, ikasleei ikusarazten zaie emozio berdina bizitzeko milaka modu ezberdin daudela, eta horrek ez duela esan nahi bata bestea baina hobeagoa denik, soilik desberdina.

**3. Jarduera: Emozioak erregulatzeko metodo ezberdinak lantzen.**

Emozioak erregulatzea ez da batere lan erraza, baina kasu batzuetan badago "kontrolatzen" saiatzea. Esaterako, pentsamendu negatiboak izaterakoan, emozioak tristeak izango dira, eta berriz, modu positiboan pentsatzen bada, emozioak positiboagoak izango dira eta hobeto sentituko dira. Horren harira, talde handian erregulatzeko hainbat metodo ezberdin landu eta horiek martxan ipintzeko saiakerak egingo dira; hala nola, arnasa sakon hartzea, arrazoinamendu logikoa, autorregulazioa eta pentsamenduaren erregulazioa. Ildo horretan, gatazketan zer nolako erreakzioak ematen diren aztertuko da. Horretarako, ikasleei bi galdera emango zaizkie, talde handian komentatuko direnak: noizbait ikusi al duzu emozioak erregulatzen duen norbait? Edo beti erreakzio bortitzak suertatzen dira? Azkenik, nabarmenduko da, emozio txar horiek kudeatzen eta erreakzio negatibo gutxiago izaten saiatu behar dela.

**4. Jarduera: Emozioen detektibeak.**

Ikasleak emozioen detektibe bihurtuko dira eta paperean hobeto sartzeko ideiarekin, lupa bat sortuko dute. Astebetez detektibe lanetan ibiliko dira eta horretarako, astearen hasieran jarduera zertan datzan azalduko zaie: astelehenetik ostiralera mugitzen diren leku ezberdinetan ematen diren emozioak aztertu behar dituzte. Gainera, adi ibili behar dira etxean, kalean, klasean, edota beste edozein lekutan gertatzen diren egoera desberdinak ikusteko eta horietan sortutako sentimenduak aztertzeko.

Astearen bukaeran, talde handian ikusitako egoerak komentatuko dira. Ostean, ikasle bakoitzari oharrak hartzeko orria **(Ikus IV.eranskina)** banatuko zaio, eta bertan, ikusitako momentu guztietatik bat aukeratuko dute. Horrekin, emozio hori zeren ondorio izan den azaldu eta horren marrazkia egingo dute. Guztiekin, ikasgelan museo bat sortuko da, non ikasleen orriak eskegiko diren guztiok guztiena ikus dezaten.

Horrekin batera, ikasleek idatzitako horretatik nabarmentzekoak diren bost egoera ezberdin aukeratuko dituzte, eta talde handian haien inguruan hausnartuko dute. Horren helburua izango da suertatzen diren emozioak ulertzea eta enpatizatzea.

**5. Jarduera: Ikusi emozio bat.**

Detektibe lanarekin jarraituz, ikasleek albokoak nola sentitzen diren aztertuko dute. Ikasleak talde txikietan banatuta, emozio txartel bat emango zaie **(Ikus III.eranskina),** eta horretaz baliatuta, txartelan oinarritutako antzerki motz bat prestatu beharko dute, ostera ikaskideen aurrean interpretatzeko. Horretarako, baldintza bakarra egongo da: ezingo dute hitzik esan, soilik gorputzaren adierazpena erabili ahal izango baitute. Horretaz gain, talde batek bere emozioa antzezten duenean, gainontzekoak zein den asmatzen saiatu beharko dira. Behin asmatuta, emozio horren ondorioa hausnartu eta zein egoera ezberdinen ondorioz gertatu den ondorioztatuko dute.

**6. Jarduera: Maitasungramak.**

Maitasungramak proposatuko dira gelan, alegia, umeek astearen hasieran ikaskide baten izena jasoko dute eta aste osoa izango dute pertsona horri gutun, marrazki edo nahi dutena idazteko. Hala ere, gelan ere denbora izango dute gutun horiek prestatzeko. Idatzitakoan, gelan egongo den postontzian sartuko dute, eta ostiralean, etxera joan aurretik, postontzia ireki eta bakoitzari bere gutuna emango zaio. Betiere, kontuan izan behar da gutun horretan mezu positiboak bakarrik bidali daitezkeela.

Helburua da ikasle guztiek ikaskide guztiei gutun bana idaztea, guztiek guztiei egiteko eta guztiengandik jasotzeko. Hori betetzeko, irakasleak ikasleen izenak agertzen diren taula bat izango du **(Ikus V.eranskina)** eta astero nork nori egin behar dion gutuna esango dio eta taulan X batekin markatuko du. Modu honetan ez dira errepikatuko eta guztiek guztiei egitea lortuko da. Era berean, gerta liteke ikasleren bat klasera faltatzea, hortaz, gutunak pendiente geratuko dira eta datorrenean ikaskideari gutuna eman beharko dio. Azken hau ikaskideekin batera adostuko da, haiek kontzienteak izateko horrelakoak gerta daitekeela baina larritu ez daitezen.

### 16. Jarduera: Ikasgelako giroan nola laguntzen dut?

Jarduera honetan ikasleek gelako giro ona izan dadin zertan laguntzen duten idatzi beharko dute. Horretarako, orri bat banatuko zaie, eta bertan, zer nolako jarrerak izan behar dituzten eta gelako arauekiko errespetua eta ikaskideen arteko harremana ona izan dadin zer egingo duten idatziko dute. Horretaz gain, taldeka eserita egonda, talde horri bakoitzak zer ekarpen egiten dion hausnartuko dute. Azkenik, bakoitzak, talde txikian zein handian aldatu beharko lituzkeen jarrerak zerrendatuko ditu.

### 18. Jarduera: Hizkuntza negatiboa positibo bihurtu.

Lehenik eta behin, egiten diren jarrera edo adierazpen negatiboak identifikatu beharko dira. Orduan, irakasleak emandako taulan **(Ikus XII.eranskina)** apuntatu beharko dute zeintzuk diren jarrera negatibo horiek, dituzten ondorio negatiboak eta sortzen dituzten sentimenduak adieraziko dituzte. Horren ostean, ekintza negatibo horiek nola zuzendu daitezke hausnartu eta idatziko dute. Azkenik, ekintza horren aldaketan jardungo dutelako konpromezua hitzartuko da.

## 2.Fasea: Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi

### 7. Jarduera: Zer da jazarpena? Jazarpena eta motak ezagutzen.

Jazarpenaren gaiari hasiera emateko, zer den eta zein motatakoak dauden aztertuko da. Horretarako, ikasleen aurreideiak zeintzuk diren identifikatuko da, gaiaren inguruko galderak eginez. Horrekin batera, bideo batzuk ikusiko dira gelan, bertan gatazka ezberdinak agertuko dira eta guztion artean identifikatu beharko dituzte egoera horiek. Alegia, jazarpena diren edo ez adieraziko dute, eta izatekotan, zein motatakoa den. Ondoren, bakoitzak bere bizipenak kontatuko ditu, noizbait bizi al duen bideoaren antzeko egoeraren bat, sufritu al duen gustura sentitu ez diren egoerak, mehatxuak, eta abar. Kontakizunak adieraztean, gertaera horien aurrean zer egin daitekeen eta nola ekiditu ditzakegun komentatuko da.

### 8. Jarduera: KiVa kontratua

Jarduera honetan, ikasleei sarrera txiki bat egingo zaie, KiVa programa zer den eta berarekin nola egingo den lan azalduz. Horrekin batera, KiVa programak jazarpenaren aurka planteatzen duen kontratuaren arauak landuko dira gelan.

1-Inor ez da baztertua izango

Ikasleei arau zentzudunak eta zentzugabeak nahasian ageri diren zerrenda erakutsiko zaie **(Ikus VI.eranskina)**. Orduan, talde handian zentzugabeak direnak kendu eta zentzudun bihurtuko dituzte, zerrenda egokia izateko. Horrela, "Inor ez da baztertua izango!" araua aurkitu eta horrek transmititzen duen mezua komentatuko dute.

2-Desberdintasuna aberasgarria da

Gelan komentatuko da guztion izaera ezberdina dela eta horrek ez duela esan nahi batzuk beste batzuk baino hobeagoak direnik. Modu berean, ikasle bakoitzak bere izena ageri den orri bat izango du eta gainontzeko ikaskideek bertan idatzi beharko dute. Bertan, pertsona horren faktore batzuk idatziko dituzte, positiboak direnak. Amaieran, jatorrizko pertsonarengana bueltatuko da orria, ikasleak berak irakur dezan.

3-Guk inori jazarpenik ez

Hasteko, ikasleei ikusarazi behar zaie jazarpena sarritan gertatzen den zerbait dela eta denbora luzean ematen dela. Hortaz, haiekin egoera ezberdinak ikusi edo sufritu duten komentatu ostean, hiru aspektutan hitzartu beharko dira: jazarpenaz ohartzekotan, pertsona heldu bati esango diotela; ez dutela jazarpenean parte hartuko; eta hirugarrenik, jazarria izaten ari den norbait ikusten badute, laguntza eskainiko diotela.

4-Guk ez dugu jazarpenean parte hartuko

Jazarpen egoera hipotetikoak planteatuko dira gelan, ikasleek ematen diren egoeren alderdi ezberdinak azter ditzaten. Modu berean, egoera horien aurrean biktimari nola lagunduko lioketen hausnartu eta bakoitzak marrazki bat egingo du, gatazka, ematen dioten laguntza eta nola konpontzen den azaltzen duena.

5-Jazarritako haurrak zure babesa behar du

Norbait gaizki edo jazarria sentitzen den egoera batean egotekotan, laguntza eman behar zaiola ikasiko da, nahiz eta pertsona hori ezagutu ez. Gainera, biktimari indartsu sentiarazi behar zaio eta babesa adierazi, finean, bakarrik ez dagoela sentiarazi. Bukatzeko, arauaren leloa idatzi eta aurreko lau arauekin batera zintzilikatuko da.

6-Jazarpena dagoenean denok pertsona heldu bati esango diogu

Hasteko, ikasleei galdetuko zaie jazarpen egoeren aurrean zer nolako jarrera izaten duten eta zein izango litekeen jarrera zuzena. Finean, irakasle, begirale, guraso edo edozein nagusiri esan behar diotela ondorioztatuko da.

Behin KiVa programak planteatzen dituen arau guztiak jadanik landuta, kontratu batean bilduko dira **(Ikus VII.eranskina)**. Ondoren, kontratuaren garrantzia eta dituzten betebeharrak azalduko zaizkie eta ikasle bakoitzak bere kontratua sinatuko du. Sinatzen duten bitartean, argazki bat aterako zaie eta horiek kontratuarekin batera gordeko dira. Modu honetan, behin kontratua sinatuta egonda eta argazkiak froga moduan gordeta egonik, hurrengo urteetan kontratua sinatuta mantenduko da, eta beraz, hartutako konpromezua betetzen jarraitu beharko dute. Azkenik, kontratuan agertzen diren arauak gelan eskegiko dira, ikusgai egon daitezen**(Ikus VIII.eranskina)**.

**13. Jarduera: Hiru karten jokoa.**

Jarduera honetarako ikasleei “Zer, Nori eta Nork” egoerak dituzten kartak banatuko zaizkie **(Ikus X.eranskina)**. Kategoria bakoitzeko karta bat aukeratu beharko dute eta horietako bakoitzean adierazten den kontzeptuekin egoera imajinatu, aztertu eta horren aurrean haiek zer egin dezaketen biktimari laguntzeko pentsatuko dute. Horren ondoren, egoera hori ekiditeko zer egin daitekeen hausnartuko dute, baita nola ikas dezaketen protagonistek hori ezin dela berriro errepikatu behar ere. Talde txikietan egongo direnez, bakoitzak egoera bakar bat aztertuko du eta ondoren, talde handian egoera eta irtenbideak konpartitu eta aztertuko dituzte.

**19. Jarduera: Jazarpena ikustekotan, KONTATU!**

Jazarpena ikusi edo sufritzen bada, norbaiti esatea komenigarria dela aztertuko da. Hori horrela, esan egin behar dela azpimarratuko da, ez daitezela isildu, sufritu zein ikustekotan; finean, esatea berebizikoa dela. Horrekin batera, argi utzi behar zaie edonori esan dakiokeela gertatzen ari dena: edozein irakasleri, jantokiko monitoreei, gurasoei, eta abar. Azkenik, lasaitasuna transmititu behar zaie, alegia, ez dezatela beldur izan egoeraren berri emateagatik, baizik eta, guztiz kontrakoa, kontatzerakoan hobeto eta seguruago sentituko direla. Gainera, laguntza jasoko dute eta arazoa konpondu egingo da.

## 3.Fasea: Sentitu, errespetatu, eta eskola-jazarpenarekin bukatu!

**9. Jarduera: Biktimaren istorioa.**

Kasu honetan jazarria den ume baten bideoa ikusi eta egoera horretan suertatzen diren emozioak aztertuko dira, biktima zein erasotzailearen papera aztertuz. Horretarako, aurretik erabilitako txartelak berriro hartu **(Ikus III.erankina)** eta emozioen zergatia adierazten saiatuko dira. Emozio txartelak arbelean itsatsi eta guztiak daudenean, analisi orokor bat egingo da.

**10. Jarduera: Hizkuntza positiboa.**

Jarduera hau egiteko, ikasleek, hizkuntza positiboa erabiliz, ikasgelako ekintza guztiak idatzi eta azalduko dute haien ustez zer den lankidetzan aritzea. Ondoren, hizkuntza positiboa erabiltzeko hitzak zerrendatuko dituzte, eta horrekin batera, hizkuntza hori erabiltzeak dituen onurak azaldu. Bestetik, hizkuntza negatiboaren terminoak idatziko dituzte, eta horretaz gain, horien kalteak argudiatu. Ondoren, talde handian komentatu eta hausnartuko da.

**11. Jarduera: Imajinatzen eta enpatizatzen.**

Bisualizazio ekintza bat planteatuko zaie **(Ikus IX.eranskina)**, horretarako, ikasleek begiak itxi eta istorio bat entzungo dute, jazarpen egoera batena alegia. Kontakizuna entzutearekin batera, imajinatu eta enpatizatzen saiatuko dira. Amaieran, talde handian, egoera komentatu eta horren inguruan hausnartuko da.

**12. Jarduera: Elkartzeko dantzan.**

“Elkartzeko dantzan” jarduera egingo da. Horretarako, ikasle bakoitzari *posit* bat banatuko zaio. Bertan, bere ezaugarririk gogokoena zein den idatziko dute (alaia izatea, atsegina, lagun ona izatea, eta abar) eta bularrean itsatsiko dute. Orduan, musika entzungo da eta gelatik mugituko dira. Gelditzean, bere berdin edo antzeko ezaugarria duen ikaskideekin batu beharko da. Horren ostean, ezaugarri guztiak aztertu eta denak baliotsuak direla komentatuko da. Jarduerarekin bukatzeko, marraztu beharko dute taldean nola sentitzen diren haiek duten ezaugarriarekin eta zer duten gogoko horrekin erlazionatuta.

**14. Jarduera: Biktima babestuko dugu.**

Jarduera honen bitartez biktima nola babestu dezakegun aztertuko da. Horretarako hainbat egoeren adibideak erabiliz, nola esku-hartu daitekeen hausnartuko da, baita

biktima afektiboki nola lagundu daitekeen ere. Horretarako, aurretik ikasitako “Hizkuntza positiboa” erabiliko da. Horretaz gain, kontuan izan beharko da biktimari eskaintzen zaion laguntza ez dela bakarrik erasotua denean ematen, baizik eta edozein momentuan eta modu ezberdinetan eman daitekeela. Esaterako, umore onaren oparia emanez, errefortzu positiboaren bitartez, eta abar. Gainera, lekuari dagokionez, patioan, gelan, jantokian, edozein momentutan adierazi daiteke.

**15. Jarduera: Jazarpen egoera baten parte garela imajinatzen eta sentitzen.**

Bisualizazio jarduera bat egingo dute **(Ikus XI.eranskina)**, eta honetan, ikasleek jazarpen egoera bat entzun eta imajinatu beharko dute. Ikasleen betebeharra oraingo honetan biktima defendatzea izango da. Istorioa kontatu ostean, denboraldi labur bat izango dute guztia sakonki hausnartzeko, eta ondoren, talde handian, kontatu beharko dute nola sentitu diren egoera hori eman ostean. Lehenik eta behin, emozio bakar bat esan beharko dute egoera definitzeko eta ostean zergatia azaldu. Bukatzeko, pentsatutako esku-hartzea orri batean azalduko dute, zein izan den eta zergatik uste dute egoera horren aurrean baliagarria suerta daitekeela.

**17. Jarduera: Asertibitatea lantzen.**

Jarduera honen bitartez asertiboak nola izan praktikatuko da, jazarpenaren aurrean bakoitzak bere burua gogorrago bihurtzeko helburuarekin. Horretarako, zutik jarriko dira. Elkarrekin, burua gora jarriko dute, jarrera egokia izanik eta benetan zein handiak diren sentituz. Serio itxura hartuko dute, orduan, asertiboak izaten ari direla sentiaraziko zaie. Horren ostean, burua txiki, babesgabe eta izkutatuta agertuko dira. Segidan, aldatu eta berriro asertibo agertuko dute haien burua.

Horren ondoren, bi egoerak konparatuko dituzte guztion artean, eta nola sentitzen diren bakoitzean azalduko dute. “Zeinetan zaude seguruago? Zeinetan sentitzen dira handiago?”

Horrekin batera, kontuan izan behar da jazarpena askotan ahozkoa dela. Orduan, asertibo itxura galdu gabe, ahozko jazarpen egoeretan nola erantzun daitekeen errepresentatuko da. Horretarako, ikasleen laguntzaz, jazarpen egoeren adibideak antzeztuko dira, horietan ikasle bakoitzak rol ezberdin bat hartuko du. Orduan, erasotua izaten den umea esaldi gako bat izango du, guztion artean komentatuko dena eta ikasiko dena, noizbait gertatuko balitz erabili ahal izateko. Esaterako, oso metodo

ona da erasotzaileak adierazten duenari buelta ematea: “-Ez dakizu baloia ongi jotzen. +Eskerrik asko esateagatik; gehiago saiatu beharko dut.”

### 5.8. Ebaluazioa

Azkenik, programa ebaluatzeko asmoarekin sei errubrika diseinatu dira **(Ikus XIII.eranskina)** helburu desberdinekin: (1) gaitasunak ebaluatzea, (2) proiektuaren baliagarritasuna frogatzea, (3) jardueren lehenengo fasea (Bihotzak, zer dio?) ebaluatzea, (4) bigarren fasea (Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi) ebaluatzea, (5) hirugarren fasea ebaluatzea (Sentitu, errespetatu, eta eskola-jazarpenarekin bukatu!) eta azkenik, (6) ikasleen parte hartzea ebaluatzea. Horrekin batera, kontuan izan behar da pre-galdetegi eta post-galdetegi teknika erabili dela, alegia, esku-hartzearekin hasi baino lehen ikasleei galdetegi bat pasa zitzaien **(Ikus II.eranskina)** aurrezagutzak zeintzuk diren identifikatzeko. Era berean, proiektua amaitzean, hasieran egindako galdetegi berdina bete izan dute, zer ikasi izan duten ikusteko. Modu horretan, hasierako eta amaieran lortutako erantzunak alderatzeko aukera egon da eta proiektuak oro har emandako emaitzak atera izan dira **(Ikus XIV.eranskina)**.

Ikasle bakoitzak errubrika bana izango du, alegia, irakasleak ikasle bakoitzeko errubrika bat beteko du. Ondoren, ikasle guztien emaitzak aztertu eta orokorrean lortutako emaitzak ondorioztatuko dira.

Kontuan izanda edukiak eta jardueren faseak zeharka lantzen direla, errubrikak ere transbertsalak direla esan dezakegu.

<u>1.Gaitasunak ebaluatzea</u>

Errubrika honen bitartez, Bisquerrak eta Heziberri curriculumak planteatzen dituen gaitasunak bete diren ebaluatzeko erabiliko da. Horretarako, kontuan izango da ikasle bakoitzak konpetentzia horiek garatu dituen eta bere ezagutzen araberakoa izango da.

<u>2.Proiektuaren baliagarritasuna ebaluatzeko errubrika</u>

Taula honekin, curriculumak adierazten dituen helburuak betetzen diren eta horietaz aparte, esku-hartzeak dituen helburu espezifikoak lortzeko baliagarria den edo ez ebaluatuko da. Horretaz gain, emaitzak espero bezalakoak izan diren edo ez ondorioztatuko da eta, era berean, proiektuaren zein alderdi aldatu behar diren adieraziko du.

3.Lehenengo fasea ebaluatzea (Bihotzak, zer dio?)

Errubrika honi esker, irakasleak ikasleak emozioen arloan nola moldatzen diren eta nolako ezagutzak dituzten ebaluatu eta jakin ahal izango du. Honekin, jardueren lehenengo fasea ebaluatuko da, “Bihotzak, zer dio?” atala alegia.

4.Bigarren fasea ebaluatzea (Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi.)

Honen bitartez, ikasleak eskola jazarpenaren inguruko kontzeptuak eta jarrerak menperatzen dituzten edo ez ebaluatu ahalko du irakasleak. Errubrika honekin, Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi, zauria josi fasea (bigarrena) ebaluatuko da.

5.Hirugarren fasea ebaluatzea(Sentitu, errespetatu, eta eskola-jazarpenarekin bukatu!)

Kasu honetan, hirugarren fasean planteatzen diren alderdiak ebaluatuko dira, aurreko bi atalen ezagutzak modu nahasian landuz. Gainera, honen bitartez, ikasleen lorpenak identifikatuko dira, haien eboluzioa nolakoa izan den aztertzeko helburuarekin.

6·Ikasleen parte hartzea ebaluatzeko errubrika

Azken errubrika honen bidez, esku-hartzea aurrera eramatean ikasleen jarrera nolakoa izan den ebaluatuko da. Hau, erabilgarria izango da irakaslearentzat ikasleak ebaluatzerako orduan. Gainera, ikasleen jarrera nonbaiten aldatu behar izatekotan, hurrengo baterako irakasleak jakingo du beste modu batean esku-hartu behar duela arazorik ez edukitzeko.

## 6. EMAITZAK

Esku-hartzea egin ostean lortutako emaitzak **(Ikus XIV.eranskina)** aztertu izan dira. Hurrengo hauek izan dira errubrika bakoitzak emandako emaitzak:

(1) Gaitasunak ebaluatzeko errubrikaz baliatuta, ikasleak haien nahiak zein ikaskideenak asebete dituztela konprobatu izan da, batzuk besteen egoerak entzun eta ulertzen saiatzen eta laguntza ematen. Gainera, taldean ikasteko eta lan egiterako orduan, bakoitzak bere ardurak bete izan ditu, bere rola ondo jokatuz eta iritzi guztiak errespetatuz. Modu berean, oro har, elkarbizitza arauak gehiago errespetatzen dituztela ikusi izan da, izan ere, egunero egoera gatazkatsuak egotetik giro lasaiago batean lan egitera pasa izan dira. Hitzez zein hitzik gabeko adierazpena landu izan dute, eta honetan, gehiengoak, autorregulazio bat lortu izan du. Era berean, bakoitza bere burua pixka bat ezagutzeko aukera bermatu zaie eta hauek hori aprobetxatu izan dute, haiena eta ikaskideena sakonago ezagutuz. Horretaz gain, norbera, gizarteko

pertsona bezala garatzeko eta errespetuzko jarrera kontzienteak jasotzeko baliagarria izan zaie, baita bizi diren testuingurua aztertzeko eta horretaz jabetzeko ere. Ikaskide batzuk besteekin erlazio zurrunak izateko gaitasuna adierazteaz gain, trebetasun sozialak eta komunikatzeko duten gaitasuna adierazi izan dute. Horrekin batera, emozioak identifikatzen jakiteaz gain, ikaskideenak identifikatzeko gai izan dira, baita horien kudeaketa autonomiaz jarduteko ere.

Hala ere, gatazkak konpontzerako orduan, oraindik, lana dago egiteke, izan ere, ikasleek haien arteko liskarrak gertatzean, gehien bat patio orduetan suertatzen direnak, kasu batzuetan elkarrizketaren bitartez konpondu beharrean irainak, isekak edo jotzeko joera izan dute. Horren harira, adierazi behar da portaera soziala ere lantzeko alderdia dela oraindik, ikasle batzuk ez baitute modu egoki eta autorregulatu batean garatu. Azkenik, ikasle batzuen kasuan, ikusi izan da emozioen kudeaketa eta autorregulazioa oraindik ez dela guztiz garatu duten adinerako, hortaz, esan daiteke, hori landu beharretan daudela.

(2) Proiektuaren baliagarritasuna ebaluatzeko taularen bitartez, esan beharra dago lortutako emaitzak nahiko positiboak izan direla. Alde batetik, ikasleei hasieran pasatutako galdetegiaren bitartez hauen aurrezagutzak ezagutzeko aukera eman du, eta hortaz, hortik abiatuta jarduerak egokitutako modu batean planteatzeko aukera. Horrekin batera, jarduera batzuk beste batzuk baino jakinmin gehiago piztu izan dute ikasleengan, baina hala ere, guzti horien bitartez zerbait ikasi izan dute. Gainera, gaiekin lotuta dagoen hiztegi berria ezagutzeko lagungarria egin zaie, hortaz, ikasleek kontzeptu berriak eta horien esanahia ikasi izan dute. Modu berean, planteatutakoarekin ikasleen emozioen adierazpenean hobekuntza bat egon da, izan ere, hasieran batzuk kostata adierazten zituzten haien sentimenduak eta gero eta gehiago landu ostean, orduan eta erraztasun handiagoz aritu izan dira. Horrekin batera, bakoitzak bere emozioak hobeto deskribatzeko eta besteenak erraztasun gehiagorekin identifikatzeko erabilgarria dela ikusi izan da ikasleen garapenean. Eskola-jazarpenaren gaia lantzeko ere baliogarria dela baieztatu daiteke, mota ezberdinak ezagutzeko eta ikasleenganako kontzientzia piztea eragin baitu, alegia, konturatzen ez ziren egoera eta minez ohartzeko gaitasuna garatu izan dute eta modu horretan, argiago izan dute zerk egin dezaken min. Gainera, eskolan zein kalean ikusitako gatazkak modu kritiko batean argudiatzeko gai izan dira, baita askotan biktima defendatzeko ere. Horretaz gain, ikasleak esku-hartzea motibazioz, interesarekin eta jakinminez hartu izan dute eta horrek erraztasuna eman izan du lan egiterako orduan. Ikasleen arreta izanda, ariketak egiteko eta haiek gehiago ikasteko

balio izan du eta hori, hein handian, planteatutako moduaren eraginez izan da, alegia, dinamika ezberdinen bitartez ikasiz.

Hala ere, batzuetan egindako guztia ez duela ezertarako balio dirudi, izan ere, gelan enpatia eta jazarpenaren inguruan hitz egin ostean, patiora irten eta bertan liskarrak izaten dituzte. Orduan, gelan adierazitako guztia ahaztu izan dutela dirudi eta horrelakoetan, baliagarritasuna noraino izan daitekeen galdetzea eragiten du. Hortaz, ez dago zalantzarik horrelako esku-hartzeek denbora luzeagoan aplikatu beharra daudela, haien eraginkortasuna handiagoa izan dadin.

(3) Lehenengo fasea ebaluatzeko (Bihotzak, zer dio?), ikasleek emozioak zer diren definitzen ikasteaz gain, hiztegi berria eta oinarrizko emozioak soilik identifikatzetik gehiagotaz konturatzera pasa izan dira. Gainera, bakoitza nola sentitzen den eta zeren ondorioz suerta daitekeen ondorioztatzen eta azaltzen ikasi izan dute. Hau guztia, hasierako eta amaierako galdetegiaren arteko konparazioan argi ikusten da. Horrekin batera, haien sentsazioak azaltzeko gaitasuna landu eta besteekiko zabalkuntza bat suertatzea lortu izan dute. Modu berean, emozioen adierazpen zuzena hobetu izan dute eta haien artean, batzuk besteei emozioak adierazteko erraztasuna lortu izan dute.

Hala ere, enpatizatzeko gaitasuna oraindik landu behar da, teoria oso ondo dakite baina horren aplikazioa zail samarra egiten zaie kasu batzuetan, hortaz, alderdi hau oraindik hobetzeke dagoen zerbait da. Horrekin batera, ikasleek emozioen jatorria kasu batzuetan identifikatzeko zailtasuna izan dute oraindik, izan ere, norbaiten egoera emozionala ikustean, zergati sinpleak ondorioztatzen dituzte, sakonean hausnartu gabe. Hori horrela, oraindik hausnartzeke dago emozio horien atzean dauden egoera eta zergati ugari.

(4) Bigarren fasea ebaluatzeko errubrikaren bitartez, ikasleek eskola-jazarpena gaiaren inguruan lortutako ezagutzak identifikatu izan dira. Horietan, hiztegia nabarmenki hobetu dela ikusi izan da, izan ere, zer den ez jakitetik, definitzera, motak ezagutzera eta eskolan emandako egoerak interpretatzeko gaitasuna jorratzera pasatu dira. Horrekin batera, eta proiektu honen helbururik garrantzitsuenetarikoa, ikasleengan gaiaren larritasunarekiko kontzientzia sortzea izan da, ohartaraztea jokaera horiek sor dezaketen mina eta hori, lan honen bitartez, kostata, baina lortu izan da.

Dena den, zailtasunak dituzte momentuzko gatazka bat eta eskola-jazarpena pairatzen duen egoera desberdintzeko. Izan ere, hau ez da lan erraza, eta hortaz, ikusten dute

liskar bakoitza jazarpentzat hartzen dute, kontuan izan gabe erasoak bete behar dituen faktoreak. Era berean, ez dakiten ongi jazarpen egoera batean nola jokatu behar duten, kasu batzuetan, oraindik, ahula defendatu beharrean erasotu edo egoeraz paso egiten baitute. Hortaz, biktimak nola babestu behar diren oraindik landu beharreko alderdia da.

(5) Hirugarren fasea ebaluatzeko errubrikak aurreko bi errubrikek emandako erantzunak adierazi ditu, izan ere, adierazi bezala, esku-hartzea zeharkakoa izanik, jardueren hirugarren fasean aurreko bien nahastea lantzen da, eta hortaz, ebaluatzerako orduan, errubrika horietatik lantzen diren atalak hartu izan dira hirugarren fase hau ebaluatzeko. Hortaz, emaitzak, aurreko bietan adierazitako berdinak izan dira.

Azkenik, (6) nabarmentzekoa da ikasleen parte hartzea oso positiboa izan dela, oro har, ariketa gehienetan gogotsu eta aktibotik parte hartu dute, gaiekiko interesa adieraziz eta etengabeko motibazioa azaleratuz. Modu berean, talde lanean orokorrean ondo jardun izan dute, guztion parte-hartzea sustatzen, errespetuz parte-hartzen eta ikaskide guztiak taldeko partaidetzat onartzen. Gainera, batzuk besteekiko lanaren mirespena adierazi izan dute, eta batzuetan sortutako tirabiretan, hitzen bitartez konpondu izan dituzte, ez dute biolentziara jo. Modu berean, hasierako egunetan landutako kontzeptuak ariketetan zein amaierako galdetegian aplikatu dituzte eta eskolako egunerokotasunean hiztegi hori erabiltzen hasi dira. Hala ere, oraingoan ere, zailtasunak izan dituzte hizkuntza positiboa erabiltzeko ikaskideekiko balorazioa egiterako orduan.

## 7.ONDORIOAK

Hasierako eta amaierako testak alderatuta, ondorioztatu daiteke ikasleek izandako garapena nabarmena izan dela, izan ere, landutako esku-hartzearen bitartez, emozio eta eskola-jazarpenaren arlo teorikoa zein pertsonala garatu izan dute. Batetik, zer esan nahi duten definitzen ikasi dute, nolakoak izan daitezkeen, zer egoerak suertatu eta horiei nola aurre egin daitekeen aztertu eta hausnartu dute. Horrekin batera haien arteko harremana hobetzeko baliagarria izan da, ikaskideetara irekitzeko, haien sentimenduak azaleratzeko eta batzuk besteekiko enpatia adierazteko. Modu berean, batzuk besteekiko errespetua bermatzeko, lanekiko mirespena adierazteko eta liskarrak sortzean babesa adierazteko beharraz kontzientzia sortu zaie. Era berean, konpromezua hartu dute eskola jazarpenari aurre egiteko eta horrelako erasoek suertatu dezaketen sufrimendua ekiditu behar dela. Oro har, esku-hartzeak helburuak

bete ditu, ikasleengan larritasunaren eta sufrimenduaren kontzientzia sorrarazi zaie, eta horrekin batera, egiaztatu da eskola-jazarpena emozioen bitartez lantzeko eta ekiditeko aukera dagoela.

Horrekin batera, ondorio nagusi moduan eta egoera aztertuta, gomendagarria litzateke irakasleek eskola jazarpena prebenitzeko gida txiki bat izatea. Modu horretan, gida eskura izanda, lagungarria izango da biktimak izateko arriskua duten ikasleak identifikatzeko, jazarpen motak aztertzeko eta ekiditen saiatzeko edo ematekotan, nola esku-hartu daitekeen jakiteko. Hori horrela, lan honekin amaitzeko, gida txiki bat sortu da, dekalogo eran, irakasleek jakin behar dituzten oinarrizko alderdiak biltzen dituena **(Ikus XV.eranskina)**.

## 8.HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Esku-hartzearen emaitzak oso positiboak izan arren, alderdi batzuk aldatu behar izango dira emaitza hobeagoak lortzeko. Alde batetik, ikusi izan da, bi asteko denbora tartea oso eskasa dela horrelako esku-hartzea planteatzeko eta erantzun bikainak lortzeko, izan ere, horrelako gaiak lantzeko denbora behar da. Hortaz, gomendagarria litzateke urte osoan zehar horrelako alderdietan lan egitea, astean bitan gutxienez, sakonago landu ahal izateko eta ikasleen inplikazioa eta ezagutza nabarmenagoa izateko.

Bestetik, ariketa batzuen sarrera beste modu batean egitea komenigarria izango litzateke, izan ere, kasu askotan ikasleek ez dute oso ongi ulertu egin behar dutena edo interesa berehala galdu izan dute. Hori horrela, jakinmina piztuago mantentzeko aldaketa batzuk egin beharko lirateke. Era berean, ariketa batzuk egiterakoan, denbora luzeegi behar izan da talde guztiek egiteko, hortaz, amaieran nekatuago daude eta ikaskideekiko arreta mantentzea gehiago kostatu izan zaie. Hori horrela, hurrengorako, talde handiagoak edo ariketa motzagoak planteatu beharko lirateke.

## 9. ERREFERENTZIAK


Aguaded, M. C. eta Pantoja, M. J. (2015). Innovar desde un proyecto educativo de inteligencia emocional en primaria e infantil. *Tendencias pedagógicas*.

Álvarez, M. eta Jurado, C. (2018). *Desarrollo socioafectivo e intervención con las familias.* Málaga: IC Editorial.

Avilés, J. M. (2006). *Bullying: el maltrato entre iguales. Agresores, vívtimas y testigos en la escuela.* Salamanca: Amarú Ediciones.

Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar.* Barcelona: Wolters Kluwer-Praxis.

Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de Investigación Educativa*, 7-43.

Bisquerra, R. (2005). La educación en la formación del profesorado. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado, 19*(3), 95-114.

Bisquerra, R. (2011). *Educación emocional. Propuestas para educadores y familias.* Bilbao: Desclée de Brower.

Bisquerra, R. (2014). *Prevención del acoso escolar con educación emocional.* Bilbao: Desclée de Brower.

Bisquerra, R. (2019). *La inteligencia emocional según Salovey y Mayerr.* Eskuratze-eguna: 2019.eko Maiatzak 18. Iturria: http://www.rafaelbisquerra.com/es/inteligencia-emocional/inteligencia-emocional-segun-salovey-mayer.html

Bisquerra, R. eta Hernández, S. (2017). Psicología positiva, educación emocional y el programa aulas felices. *Papeles del Psicólogo*, 58-65.

Bisquerra, R. eta Pérez, N. (2007). Las competencias emocionales. 61-82.

Bisquerra, R., Pérez, J. C. eta García, E. (2014). *Inteligencia emocional en la educación.* Madrid: Síntesis.

Caballero, A. (2007). *La educación emocional, un beneficio para la escuela, la persona y la sociedad.* Eskuratze-eguna: 2018ko otsailaren 3a. Iturria: educaweb: http://www.educaweb.com/noticia/2007/11/05/educacion-emocional-beneficio-escuela-persona-sociedad-2615/

Cerezo, F. eta Rubio, F. J. (2017). Medidas relativas al acoso escolar y ciberacoso en la normativa autonómica española. Un estudio comparativo. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*.

Del Rey, R. eta Ortega, R. (2001). Programas para la prevención de la violencia escolar en España: la respuesta de las comunidades autónomas. *Revista electronica interuniversitaria de formación del profesorado*, 133-145.

Elipe, P., Ortega, R. eta Hunter, S. (2012). Inteligencia emocional percibida e implicación en diversos tipos de acoso escolar. Behavioral Psychology/Psicologia Conductual. 20. 169-181.

Eusko Jaurlaritza (2015). *Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida.* Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, Vitoria-Gasteiz. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif11/eu_5613/adjuntos/eskola_jasarpena_gida_2015.pdf helbidetik eskuratua

Eusko Jaurlaritza (2016). Heziberri 2020. *Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma: 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea.* Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila: Euskal Herria. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osoa.pdf estekatik berreskuratua.

Extremera, N. eta Fernández, P. (2004). El papel de la inteligencia emocioal en el alumnado: evidencias empíricas. *Revista electrónica de investigación educativa*.

Gallo, H. (2017). *Violencia escolar y autoridad. El bullying desde la perspectiva psicoanalítica.* Medelin: Universidad de Antioquia.

Garaigordobil, M. (2013). Cyberbullying. Screeninig de Acoso Entre Iguales [Cyberbullying. Screening for Peer Harassment]. Madrid: TEA

Garaigordobil, M. eta Peña-Sarrionandia, A. (2015). Effects of an emotional intelligence program in variables related to the prevention of violence. *Frontiers in psychology*, *6*, 743.

Izquierdo, A. I. (2017). El acoso escolar: propuesta de intervención a través de la educación emocional y en valores.

Jones, L., Doces, M., Swearer, S. eta Collier, A. (2012). Implementing bullying prevention programs in schools: a how-to guide.

Leary, M. R., Kowalski, R. M., Smith, L. eta Phillis, S. (2003). Teasing, rejection and violence: Case studies of school shootings. Aggressive Behavior, 29(3), 202-214

Sala, J., Abarca, M. eta Marzo, L. (2002). La educación emocional y la interacción profesor/a-alumno/a. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado, 5*(3).

Salas, B. eta Serrano, I. (2000). *La Pentacidad.* Málaga: CPI.

Salmivalli, C., Poskiparta, E., Tikka, A. eta Pöyhönen, V. (2013). *KiVa Eskola Jazarpenaren aurkako programa: Irakaslearen gidaliburua, 2.unitatea.* Turkiko Unibertsitatea: Psikologia Saila.

Vieites, A. (2017). Programa de educación emocional para un aula de 2º de primaria (Conciencia y regulación emocional). Projecte Final del Postgrau en Educació Emocional i Benestar. Barcelona: Universitat de Barcelona. Dipòsit Digital: http://hdl.handle.net/2445/121683

## 10.ERANSKINAK

**I.Eranskina:** Ordutegia

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 9:30-10:15 | Hasierako galdetegia | | 5.ariketa | | |
| 10:15-11:00 | 1.ariketa | 3.ariketa | | | 4.ariketa bete |
| 11:00-11:30 | JO | LAS | OR | DU | A |
| 11:30-12:25 | | | | | 8.ariketa |
| 12:25-13:15 | | | | 6.ariketa (Gutunak idazteko denbora) | |
| 13:15-15:00 | BAZ | KAL | | OR | DUA |
| 15:00-15:45 | | | | 7.ariketa | |
| 15:45-16:30 | 2.ariketa | 4.ariketa | | | |

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | OSTEGUNA | OSTIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 9:30-10:15 | | | | | |
| 10:15-11:00 | | 12.ariketa | | 16.ariketa | 19.ariketa |
| 11:00-11:30 | JO | LAS | OR | DU | A |
| 11:30-12:25 | | | | | Amaierako galdetegia |
| 12:25-13:15 | | | 14.ariketa<br>15.ariketa | | |
| 13:15-15:00 | BAZ | KAL | | OR | DUA |
| 15:00-15:45 | 9.ariketa<br>10.ariketa | | | 17.ariketa | |
| 15:45-16:30 | 11.ariketa | 13.ariketa | | 18.ariketa | |

**II.Eranskina:** Hasierako galdetegia



## Bihotzak, zer dio?

1·Zer dira emozioak?

…………………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………………

…………………………………………………………………………………………………

2·Zein emozio ezagutzen dituzu?

…………………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………………

…………………………………………………………………………………………………

3·Zuk zein emozio sentitu dituzu?

…………………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………………

…………………………………………………………………………………………………

4·Noiz sentitzen duzu poza? Eta noiz tristura?

…………………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………………

…………………………………………………………………………………………………

5·Emozioak kontrolatu ahal dira? Nola?

…………………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………………

…………………………………………………………………………………………………

6·Zuk kontrolatzen dituzu?

………………………………………………………………………………………………

………………………………………..………..……………………………………………

………………………………………………………………………………………………

7·Haserretzen bazara zure burua kontrolatzeko gai zara?

………………………………………………………………………………………………

………………………………………..……………………………………………………..

……………………………………………………………………………………..……………

8·Zein metodo erabili daiteke haserrea kontrolatzeko?

………………………………………………………………………………………………

………………………………………..……………………………………………………..

……………………………………………………………………………………..……………





Kolpe, kolpe, kolpeka, zauria josi,

zauria josi

1·Noizbait baztertuta sentitu zara?

……………………………………………………

………………………………………………………………………………………….………

..……………………………………………………………………………………………………

………………………………………………

2·Norbait baztertu duzu noizbait? Zergatik?

……………………………………………………………………………………………………

……………………………………………..………..……………………………………………

……………………………………………………………………………………………………

3·Nola sentituko zinateke baztertuta egongo bazina?

……………………………………………………………………………………………………

……………………………………………..………..……………………………………………

……………………………………………………………………………………………………

4·Zer da jazarpena?

……………………………………………………………………………………………………

……………………………………………..………..……………………………………………

……………………………………………………………………………………………………

5·Zein motatakoak dira?

……………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………

……………………………………………………………………………………………

6·Noizbait bizi duzu?

……………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………

……………………………………………………………………………………………

7·Eta ikusi?

……………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………

……………………………………………………………………………………………

8·Ikusi duzunean, zer egin duzu?

……………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………

……………………………………………………………………………………………

9·Biktima babestu duzu?

……………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………

……………………………………………………………………………………………

10·Nori esan diozu?

……………………………………………………………………………………………

……………………………………..………..…………………………………………

……………………………………………………………………………………………

11·Nola sentituko zinateke jazarpena sufritzekotan?

………………………………………………………………………………………………………

………………………………………..………..…………………………………………………

………………………………………………………………………………………………………

12·Nola uste duzu sentitzen direla besteak?

………………………………………………………………………………………………………

………………………………………..………..…………………………………………………

………………………………………………………………………………………………………

13·Nola bukatu daiteke jazarpenarekin?

………………………………………………………………………………………………………

………………………………………..………..…………………………………………………

………………………………………………………………………………………………………

**III.Eranskina:** Emozioen txartelak



**IV.Eranskina:** Oharrak hartzeko orriak



Detektibea:

Oharrak hartzeko orria

-Zein emozio identifikatu ditut aste honetan zehar?

-----------------------------------------------------------------------

-Aukeratu ikusi duzun emozio bat. Esan zer den eta zergatik sortu den.

-----------------------------------------------------------------------

-----------------------------------------------------------------------

-Aukeratu duzun emozioa marraztu.

## V.Eranskina: Maitasungramak-Ikasleen zerrenda

| | Aner | Oier | Jugatx | Hakim | Arrieta P | Noa | Dayron | Adriana | Roberto | Izei | Bikendi | Aitor | Olaia | Arrieta U | Iker | Yeray | Eneko | Ignati | Asier | Mireia | Oihan | Endika | Leire | Sifao | Ilyass |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Aner | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Oier | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Jugatx | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Hakim | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| ArrietaP | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Noa | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Dayron | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | | |
| Adriana | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | | |
| Roberto | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | | |
| Izei | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | | |
| Bikendi | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | | |
| Aitor | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | | |
| Olaia | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | | |
| ArrietaU | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | | |
| Iker | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | | |
| Yeray | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | | |
| Eneko | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | | |
| Ignati | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | | |
| Asier | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | | |
| Mireia | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | | |
| Oihan | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | | |
| Endika | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x | |
| Leire | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x | x |
| Sifao | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | x |
| Ilyass | x | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |

**VI.Eranskina:** Zentzurik gabeko arauen zerrenda

**Zein arau dira zuzenak eta zein ez?**

1. Ikasle batek beste batengandik barre egiten duenean gu ere barre egingo dugu.
2. Borroka bat ikusten dugunean ez diogu inori esango.
3. Ikaskide bat negarrez badago barre egingo dugu.
4. Nahiz eta desberdinak garen guztion lagunak izan behar gara.
5. Irakasleari ez diogu kasurik egingo.
6. Ikaskideak baztertu egingo ditugu haiekin ez dugulako jolastu nahi.
7. Arazoren bat suertatzen baldin bada ikaskideren batekin, jotzen konponduko dugu.
8. Jazarria izaten ari den norbaiti laguntzeko prest egon behar dugu.
9. Ikaskideak desberdinak direlako barre egingo dugu haietaz.
10. Desberdinak diren lagunak baztertuko ditugu.
11. Norbaitekin arazoak izatekotan, hitz egiten konponduko dugu, inoiz ez joz.
12. Norbait jazarria dela ikusten badugu ez dugu ezer egingo.
13. Irakasleen laguntza bilatuko dugu arazoren bat sortzen denean.
14. Zerbait txarra egiten ari dioten norbaiti ez diogu babesa emango.
15. Arazoren bat egotekotan, ez diogu irakasleari, jantokiko begiraleei edo beste edozein pertsona nagusiri kontatuko.
16. Ikaskide guztiekin ondo konponduko gara eta laguntza eskainiko diegu.

**VII.Eranskina:** Jazarpenaren aurkako kontratua

## Jazarpenaren aurkako kontratua

Balmasedan, ________ko ______________________ren_____(a)n.

______________________________ikasleak konpromisoa hartzen du gelan landutako arau hauek betetzera:

1. Inor ez da baztertua izango.

2. Desberdintasuna aberasgarria da.

3. Guk inori jazarpenik ez!

4. Guk ez dugu jazarpenean parte hartuko.

5. Jazarritako haurrak zure babesa behar du.

6. Jazarpena dagoenean, denok pertsona heldu bati esango diogu.

Sinadura:



**VIII.Eranskina:** Kontratuaren arauak




Inor ez da
baztertua
izango
Desberdintasuna
aberasgarria da
Guk inori
jazarpenik ez
Guk ez dugu
jazarpenean parte
hartuko
Jazarritako
haurrak gure
babesa behar du



**IX.Eranskina:** Bisualizazio ariketa I

Kaixo!

Bigarren mailako ikasle arrunt bat naiz. Zu bezalakoxea naiz, salbuespen batekin: jazarria izaten ari naiz. Agian zu ere inoiz jazarria izan zara. Hala bada, imajina dezakezu zer gaizki sentiarazten didan. Nire gelan, hiru mutil beti niri jarraika ari dira.

Orain dela egun gutxi, mutilek nire eskularruak hartu zituzten esekitokitik, jolas-orduan putzu lohitsu batean sartu zituzten, eta ondoren eskularru bustiak ostera esekitokian zintzilikatu zituzten. Hasieran pentsatu nuen eskularruak galdu nituela, baina gero, aurkitu eta erabat bustita eta lohitsu zeudela ikusi nuenean, berehala konturatu nintzen zer gertatu zen. Hurrengo jolas-ordua hasi zenean, kanpora atera nintzen eskularrurik gabe. Hala ere, mutilak atzetik etorri zitzaizkian, eta ez ninduten bakean uzten. Nire eskularruak astintzen ari ziren putzuaren gainean, eta, haiek hartzen saiatu nintzenean, barrez hasi ziren. Haserretu egin nintzen, baina mutilei ez ikusiarena egitea erabaki nuen, eta joan egin nintzen.

Jolas-ordua bukatu eta barrura sartu nintzenean, mutil horiek berak esekitokiaren inguruan zeuden. Haietako bat nire eskularru busti eta lohitsuei eusten ari zen. Eskularruekin nire berokiaren besoa igurzten hasi zen. Besoa lohiz zikindu zen erabat. Mutilek barre egin zuten. Orduantxe erabaki nuen egoera horrek bukatu behar zuela. Pixka bat izututa nengoen baina adorea bildu eta mutiletako bati begietara begiratu nion, finko. Esan nion: “Nahikoa da, gelditu!”

Mutilak pauso bat egin zuen atzera, baina barrez jarraitu zuen eta ez zizkidan eskularruak eman nahi. Orduan berriro eran nion: “Benetan ari naiz: gelditu eta itzuli nire eskularruak”.

Eta, badakizu zer? Gelditu egin ziren. Hala ere, ez dut uste jokaera horrek beti funtzionatuko duenik. Seguru nago batzuetan irakasleari esan beharko diodala, baina, orduko hartan, jazarpena hortxe bukatu zen. Bi aste pasa dira, eta ordutik mutilak ez zaizkit gehiago jazarri. Erabaki dut berriro hasten badira irakasleari esango diodala.

**X.Eranskina:** Zer, Nori, Nork.

**1.TALDEA**

**Zer?** Baztertu egin dute, jolastu ezin duela esaten

**Nor?** Zure klaseko bat

**Nork?** Klaseko talde bat

**2.TALDEA**

**Zer?** Eskaileretan gora iraindu dute

**Nor?** Zure ahizpa/arreba txikia

**Nork?** Bigarren mailako neska batek

**3.TALDEA**

**Zer?** Hamaiketakoa lapurtu diote patioan

**Nori?** Zure lagun minari

**Nork?** Hirugarren mailako bi mutikok

**4.TALDEA**

**Zer?** Betaurrekoak dituelako barre egin diote

**Nori?** Lehenengo mailako neska bati

**Nork?** Seigarren mailako mutilek

**5.TALDEA**

**Zer?** Lodia dela esaten diote

**Nori?** Bigarren mailako mutil bati

**Nork?** Klasekideek

**XI.Eranskina:** Bisualizazio ariketa II

Orain, jazarpenaren inguruko istorio txiki bat entzungo duzue. Jarri eroso. Nahi baduzue, burua ikasmahaiaren gainean jarri. Itxi begiak eta hartu arnasa sakon, lasai. Kontzentratu, ireki belarriak eta entzun oso adi.

Eskolako pasabidean zaude, gelarantz zoaz. Pasabidean oso ikasle gutxi daude. Zu eta beste ume gutxi batzuk bakarrik. Bat-batean, norbait oihukatzen entzuten duzu:

“Emaidazue! Utzi bakean”

Atzera begiratzean, laugarren mailakoak ikusten dituzu, lehenengo mailako ikasle bati karpeta kendu diote. Beraz barrezka ari dira.

“Ez hurbildu” esaten dio nagusi batek lehenengo mailako umeari.

Lehenengo mailako ikasleak ez daki zer egin, ez diote karpeta bueltatzen eta negarrez hasten da.

“Negar egiten ari da txiki hau!” “Bi urteko ume bat bezalakoa da” – Burla egiten diote nagusiek.

Orduan, arazoa ikustean, ume txikiari lagundu nahi diozu, baina ez dakizu nola. Korrika, irakaslearengana zoaz eta gertatzen ari dena kontatzen diozu. Irakasleak laugarren mailakoei gelditzeko esaten die eta txikiari karpeta itzultzen diote.

Zu, heroi baten moduan sentitzen zara. Norbaiti lagundu diozu eta horrek zoriontsu egiten zaitu. Gainera, irakasleak “Bikain, zorionak. Oso ondo egin duzu niri esatean” esaten dizu. Oso ondo sentitzen zara, norbaiti lagundu diozulako.

Pixkanaka-pixkanaka, ireki begiak eta altxatu zaitezte.

**XII.Eranskina:** Hizkuntza negatiboa positibo bihurtu

| Zein jarrera negatibo ditut? | Zein ondorio dituzte nire jarrera negatibo horiek? | Zein sentimendu sortzen dituzte? | Nola bihurtu ditzaket jarrera horiek jarrera positiboetan? |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

**XIII.Eranskina:** Ebaluatzeko errubrikak

## (1)Gaitasunak ebaluatzeko

| IRIZPIDE ETA ADIERAZLEAK | HASIERAKO MAILA | ERDIKO MAILA | MAILA AURRERATUA |
|---|---|---|---|
| **1. ·Norberaren eta besteren nahiak asebete daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.** | Ez ditu norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazten, ezta besteenak kontuan izaten. | Ez ditu norberaren sentimenduak, pentsamenduak edo nahiak modu asertiboan adierazten, edo besteenak ez ditu kontuan izaten. | Norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazten ditu eta horretaz gain, besteenak kontuan izaten ditu. |
| **2. Taldean ikastea eta lan egitea, nork bere ardurak onartuz eta helburu komuneko lanetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuta.** | Ez da gai taldean lanak egiteko, lankidetza sustatzeko eta besteen iritziak onartzeko. | Zailtasunak ditu taldean lan egiteko, lankidetza sustatzeko eta besteen iritziak onartzeko. | Arazorik gabe taldean lan egiteko gai da, lankidetza sustatzen du eta besteen iritziak onartzen ditu. |
| **3. Norberaren portaerak giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak betetzea.** | Ez ditu elkarbizitza arauak errespetatzen. | Noizbehinka betetzen ditu elkarbizitza arauak. | Elkarbizitza arauak errespetatzen ditu. |
| **4. Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.** | Ez ditu gatazkak elkarrizketa eta negoziazioaren bidez konpontzen. | Normalean ez ditu gatazkak elkarrizketa eta negoziazioaren bidez konpontzen. | Gatazkak elkarrizketa eta negoziazioaren bitartez konpontzen ditu. |
| **5. Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza eta hizkuntza digitala** | Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza ez du autoerregulatzen. | Zailtasunak ditu hitzik eta hitzik gabeko hizkuntza autoerregulatzeko. | Hitzik eta hitzik gabeko hizkuntza autoerregulatzeko gaitasuna du. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **autorregulatzea.** | | | |
| **6. Portaera soziala eta morala autorregulatzea.** | Ez du portaera sozial eta morala autoerregulatzen. | Portaera soziala eta morala autoerregulatzeko zailtasunak ditu. | Portaera soziala eta morala autoerregulatzeko gai da. |
| **7. Emozioak autorregulatzea.** | Ez dakizki emozioak autoerregulatzen. | Zailtasunak ditu emozioak autoerregulatzeko. | Emozioak autoerregulatzen daki. |
| **8. Nork bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealistak edukitzea.** | Ez dauka bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealistak. | Ez dauka bere buruaren gaineko kontzeptu edo estimu on edo errealistak. | Bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealista du. |
| **9. Norbera banako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi dela ulertzea, eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea askotariko ezaugarriak eta xedeak dituzten taldeetan, maila bat baino gehiagotan (familian, eskolan, auzoan, herrian, nazioan eta gainerako mailetan)** | Ez du ulertzen gizartean beste pertsona batzuekin bizi den banakoa dela eta hortaz, pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea ezinbestekoa dela. | Zailtasunak ditu ulertzeko gizartean pertsona batzuekin bizi den banakoa dela eta hortaz haiekin lanean aritu eta antolatzea beharrezkoa dela. | Gai da hausnartzeko beste pertsonekin bizi den banakoa dela eta pertsona horiekin lanean aritzea eta antolatzea beharrezkoa dela. |
| **10. Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita; aintzat hartzea garaiko gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala, eta bereziki, egungo euskal gizartekoa, eta naturarekin, bere buruarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko era berrien bila aritzea, gizartea hobetu eta jasangarri bihurtzeko.** | Ez da jabetzen inguruneko herritarra dela eta horrekiko konpromisoa duela, gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala kontuan izanik eta bere buruarekiko eta gainerako pertsonekiko harremanetan jartzeko era berriak bilatu behar direla, gizartea hobetzeko asmoz. | Zailtasunak ditu inguruneko herritarra eta horrekiko konpromisuaz jabetzeko, gizarteetako aniztasun sozial eta kultura kontuan izanik eta bere buruarekiko eta gainerako pertsonekiko harremanetan jartzeko era berriak bilatu behar direla, gizartea hobetzeko asmoz. | Jabetzen da ingurunearekiko herritarra dela eta horrekiko konpromisoa duela, gizarteetako aniztasun soziala eta kulturala kontuan izanik eta bere buruarekiko eta gainerako pertsonekiko harremanetan jartzeko era berriak bilatu behar direla, gizartea hobetzeko asmoz. |
| **11.Beste pertsonekin erlazio zurrunak mantentzea, trebetasun soziala, komunikazio eraginkorra, errespetua, asertibitatea eta abar menperatzea eskatzen duena.** | Ez da gai besteekiko erlazio zurrunak mantentzeko eta ez ditu alderdi sozialak menperatzen. | Zailtasunak ditu besteekiko erlazio zurrunak izateko eta alderdi sozialak menperatzeko. | Gai da besteekiko erlazio zurrunak izateko eta alderdi sozialak menperatzeko. |
| **12.Jarrera egokiak eta arduratsuak** | Ez da gai jarrera egokiak eta | Ez da gai jarrera egokiak eta | Gai da jarrera egokiak eta |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **hartzeko gaitasuna, egunerokotasunean ematen diren erronkei aurre eginez modu egoki batean.** | arduratsuak izateko ezta egunerokotasunean ematen diren erronkei modu egoki batean aurre egiteko. | arduratsuak izateko edo egunerokotasunean ematen diren erronkei modu egoki batean aurre egiteko. | arduratsuak izateko, baita egunerokotasunean ematen diren erronkei modu egoki batean aurre egiteko. |
| **13.Emoziak modu egokian antolatu, emozio, kognizio eta jarreraren erlazio kontzientzia izanez.** | Ez ditu emozioak modu egokian antolatzen ezta emozio, kognizio eta jarreraren arteko erlazioaren kontzientzia. | Ez ditu emozioak modu egokian antolatzen edo emozio, kognizio eta jarreraren arteko erlazioaren kontzientzia. | Emozioak modu egokian antolatzen ditu eta emozio, kognizio eta jarreraren arteko erlazioaren kontzientzia dauka. |
| **14. Autonomia emozionala eta autogestioa izatea.** | Ez du bere autonomia emozionala ezagutzen ezta autogestionatzen. | Ez du bere autonomia emozionala ezagutzen edo ez daki autogestionatzen. | Autonomia emozionala ezagutzen du eta autogestionatzen daki. |
| **15.Bakoitzaren eta besteen emozioak identifikatu, testuinguruaren arabera alda daitezkeenak** | Ez ditu emozioak identifikatzen eta ez du ulertzen testuinguruaren arabera alda daitezkeela. | Ez ditu emozioak identifikatzen edo ez du ulertzen testuinguruaren arabera alda daitezkeela. | Emozioak identifikatzen ditu eta ulertzen du testuinguruaren arabera alda daitezkeela. |

### (2)Baliagarritasuna ebaluatzeko

| IRIZPIDE ETA ADIERAZLEAK | HASIERAKO MAILA | ERDIKO MAILA | MAILA AURRERATUA |
|---|---|---|---|
| **1.Hasierako galdetegia baliogarria da ikasleen aurreideiak identifikatzeko.** | Hasierako galdetegiak ez du baliorik ikasleen aurreideiak identifikatzeko. | Hasierako galdetegiak alderdi batzuetan lagungarria da baina besteetan ez. | Lagungarria da ikasleen aurreideiak identifikatzeko. |
| **2.Proposatu ariketek interesa piztu dute ikasleengan.** | Ez du gaiarekiko interesa piztu. | Momentuan gaiarekiko interesa piztu du baina besterik ez. | Gaiarekiko interesa piztu du. |
| **3.Ariketen bitartez ikasleek kontzeptu berriak ezagutu dituzte.** | Ez du balio inolako kontzepturik ikasteko. | Kontzeptu berriak ikasteko baliogarria da, baina ez gehiegi. | Kontzeptu berriak ikasteko balio du. |
| **4.Gaiarekin zer ikusia duten hiztegia lantzeko aukera ematen dute.** | Ez du hiztegia lantzeko aukera ematen. | Hiztegi sinple eta gutxi lantzeko aukera ematen dute. | Hiztegi berria lantzeko aukera ematen du. |
| **5.Emozioak lantzeko ariketak ikasleengan eragina izan dute.** | Ez dute ikasleenganako eraginik izan. | Ikasleenganako eragina epe motzekoa izan da. | Ikasleenganako eragina nabarmenekoa izan da. |
| **6.Emozioak zer eta zeintzuk diren ikasteko baliogarria da.** | Ez du balio emoziak zer diren eta zeintzuk diren ikasteko. | Ez da baliogarria emozioak zer diren edo zeintzuk diren ikasteko. | Baliogarria da emozioak zer diren eta zeintzuk diren ikasteko. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **7·Ikaskideen aurrean emozioak askatasunez adierazten laguntzen dute.** | Ez dute laguntzen ikaskideekin emozioak azaleratzera. | Oso gutxi laguntzen dute ikaskideekin emozioak azaleratzeko. | Baliogarriak dira ikaskideekin emozioak azaleratzeko. |
| **8·Ikaskideekiko emozioak azaleratzeko balio dute.** | Ez dute balio ikaskideekiko emozioak adierazteko. | Gutxi laguntzen dute ikaskideekiko emozioak adierazteko. | Baliogarriak dira ikaskideekiko emozioak adierazteko. |
| **9·Ikasleek hizkuntza positiboa erabil dezaten laguntzen dute.** | Ez du laguntzen ikasleek hizkuntza positiboa erabiltzeko. | Ez da oso lagungarria, baina batzuetan eragina antzeman daiteke, hizkuntza positiboa erabiltzeko. | Lagungarria da ikasleek hizkuntza positiboa erabil dezaten. |
| **10·Ikasleeekin jazarpena zer den lantzeko baliogarria da.** | Jazarpena zer den lantzeko ez du balio. | Baliogarria izan daiteke ikasleekin lantzeko baina ez asko. | Baliogarria da jazarpena zer den lantzeko. |
| **11.Ikasleek jazarpen motak ezagun ditzaten balio dute.** | Ez da baliogarria jazarpen motak ikasleekin lantzeko. | Ez da oso argia ikasleekin lantzeko, ez dute ulertzen. | Zuzena da ikasleekin jazarpen motak lantzeko. |
| **12·Ikasleekin jazarpena lantzeko eta kontzientzia sortzeko erabilgarriak dira.** | Ez da baliogarria ez jazarpena lantzeko, ezta ikasleengan kontzientzia pizteko ere. | Ez da baliogarria jazarpena lantzeko edo ikasleengan kontzientzia hartzeko. | Baliogarria da ikasleek jazarpena zer den ikasteko eta kontzientzia hartzeko. |
| **13·Ikasleen motibazioa pizteko baliogarriak dira.** | Ez du ikasleengan motibaziorik pizten. | Momentuan motibazio txiki bat pizten du baina ez du asko irauten. | Ikasleengan motibazioa pizten du. |
| **14·Ikasleekin modu dibertigarri eta eraginkorrean gaiak jorratzeko baliogarriak dira.** | Ez da baliogarria modu dibertigarri eta eraginkorrean irakasteko. | Ez da baliogarria modu dibertigarri edo eraginkorrean irakasteko. | Baliogarria da modu dibertigarri eta eraginkorrean irakasteko. |
| **15·Ikasleen arteko harremana bermatzeko lagungarriak dira.** | Ez du ikasleen arteko harremana bermatzen. | Ikasleen arteko harremana oso gutxitan bermatzen du. | Ikasleen arteko harremana bermatzen du. |

**(3) Lehenengo fasea ebaluatzeko (Bihotzak, zer dio?)**

| IRIZPIDE ETA ADIERAZLEAK | HASIERAKO MAILA | ERDIKO MAILA | MAILA AURRERATUA |
|---|---|---|---|
| **1.Gaiarekin zer ikusia duen hiztegia menperatzen du.** | Azalpena ematerakoan, mailegu desegoki asko erabili ditu eta hitzen esanahia nahasten du. | Azalpena ematerakoan, tarteka, mailegu desegokiak erabili ditu. | Azalpena ematerakoan, berariazko hiztegia erabili du zehaztasunez. |
| **2.Emozioak definitzen daki.** | Ez daki emozioak definitzen, mailegu desegokiak erabiltzen ditu eta hitzen esanahia nahasten du. | Emozioak definitzeko zailtasunak ditu, mailegu desegokiak erabiltzen ditu. | Modu egokian azaltzen du zer diren emozioak. |
| **3.Emozioen izenak ezagutzen ditu.** | 5 emozio baino gutxiagoren izenak dakizki eta bakoitzaren esanahia ezagutzen du. | 5-10 emozioren izenak dakizki eta bakoitzaren esanahia ezagutzen du. | 10 emozio baino gehiagoren izenak dakizki eta bakoitzaren esanahia ezagutzen du. |
| **4.Bere sentimenduak azaltzeko gaitasuna dauka.** | Ez da gai bere sentimenduen azalpena emateko. | Zailtasunak ditu bere sentimenduen azalpena ematerako orduan. | Modu egokian adierazten ditu sentitzen dituen emozioak eta azalpen egokiak emateko gai da. |
| **5.Besteen emozioak identifikatzeko eta deskribatzeko gai da.** | Gainontzekoen emozioak identifikatzeko eta deskribatzeko ez da gai. | Zailtasunak ditu gainontzekoen emozioak identifikatzeko edo azaltzerako orduan. | Gai da gainontzekoen emozioak identifikatzeko eta sentitzen duten hori azaltzeko. |
| **6.Besteekin enpatizatzeko gaitasuna dauka.** | Ez da gai ikaskideekin enpatizatzeko. | Zailtasunak ditu ikaskideekin enpatizatzeko, nahiz eta batzuetan egiten duen. | Ikaskideekin enpatizatzeko gai da. |
